

## Kultura

Zilar Asteak artea izango du ardatz Plateruena  
Kafe Antzokian, apirilaren 7tik 12ra >11



## Mugarra Triatloi Taldeak 10. urteurrena egun osoko egitarauarekin ospatuko du

Biharko antolatu dute ospakizun eguna. Eguerdiko ekitaldien ondoren, Plateruenean bazkalduko dute

Hamar urte igaro dira lagun talde batek Mugarra Triatloi Taldea sortu zuenetik. Sasoi hartan gutxi batzuek ezagutzen zuten kirolak zaleak gehitu ditu etengabe. Mugarrak iaz antolatutako duatloi herrikoian, esaterako, 700 lagunek parte hartu zuten. Gaine-

ra, triatloi eskola sortu zuten 2008an, kirolaren etorkizuna harrobian dagoela jakinda. Gaur egun, 70-80 gaztek eskolaz kanpoko jarduera legez hartu dute triatloi eskola. Bihar, Durangon, hainbat ekitaldi izango dituzte, ibilbide oparoa ospatzeko. >15



Ibaizabalek, Zabalarrak, Fray Juan de Zumarragak, Kurutziagak eta Landakok elkarlanean dihardute LOMCE legearen aurka >3

## LOMCEren kontra batuta

Ane Solagaistua (Ibaizabal), Izaskun Duñabeitia (Zabalarra), Jabi Iraeta (Fray Juan de Zumarraga), Karmele Arruti (Kurutziaga) eta Rosa Mintegi (Landako)

## GIZARTE INTEGRAZIOKO Goi Mailako Zikloa



AURREMATRIKULA EPEA  
maiatzaren amaieran hasita

Lan mundura hurbiltzeko ikastaro osagarriak eta  
proiektu praktikoak garatzeko aukera eskaintzen dogu!

DEITU  
ETA  
INFORMATU  
ZAITEZ!

*Orue*  
GORRIKORRIKO ENKOLA  
ESKUELA SUPERIOR

 [www.orueeskola.org](http://www.orueeskola.org)  
 Tel. 946 300 058  
San Miguel de Duda, s/n  
48340 AMOREBIETA-ETXANO

### Zornotza > 4

Tren geltokiko arrapala eraiki dezatela eskatu dute Zubizabalako bizilagunek

### Durangaldea > 7

A-8 autobideko beharginen protestak egin dituzte asteon

### Berriz > 6

Soberakinari esker Erraldereko zorra kitatu du Berrizko Udalak

### Elorrio > 8

Intxorta asti elkarateak 25. urteurrena ospatuko du domekan

# Herririk herri

> DURANGO



## Pertsona nagusien erreflexu galera, trafikorako arrisku

Mugikortasun segurua indartzeko kanpaina garatu dute nagusien artean

### > MARKEL ONAINDIA

Durango Udalak eta Stop Accidentes elkarteak pertsona nagusiak trafikoaren arriskuez kontzientziatzeko kanpaina egin dute. Informazio ekintzak garatu dituzte azken asteetan, eta trafiko arauen inguruko tailer bat ere bai; 60 lagunek parte hartu dute. Bizidun nagusien elkartearen laguntza eduki dute zabal-kundean.

Udalak mugikortasun segurua indartu gura du, batez ere nagusien kasuan. EAEko datuak hartuta, 2012an auto batek ha-

rrapatuta hildako guztiak 64 urtetik gorakoak ziren.

Durango 132 auto istripu egon ziren 2013an, eta horietatik hamabost izan ziren oinezkoak harrapatzeagatik; EAEko datuen kontrara, bakarra 55 urtetik gorakoa. Hala ere, beharrezko ikusten dute sentsibilizazioa. Oinezko lez ez ezik, gidari lez ere bai. Urteekin erreflexuak galtzen dira, eta asko ez dira horren arriskuaz konturatzen. Horregatik, tailerrean autoeskolako irakasle baten eta udaltzain baten oharrak jaso dituzte nagusien artean.

Udaltzainaren arabera, duela hamar bat urte Durango urtean lagun bat hiltzen zen autoak harrapatuta. Bere ustez, trafikoaren antolatetarako eta kale batzuk oinezkoentzat jarri izanak egoera hobetu dute.

Baina, oraindik badago zer hobetu. Esaterako, Frai Juan Zumarraga kaleko zebra bideetan argitasun faltaz kexatu dira herritarrek; harrapatze gehienak bertan izan dira. PSE-EEK sustatuta hobekuntzak onartu zituzten aurrekontuetan, eta apirilean hasiko dituzte obrak.



**Marisa Griñon**  
DURANGO

Interesgarria iruditu zait, memoria apur bat freskatzeko balio izan digu. Nik gida-

baimena duela 49 urtetik daukat. Ez gara konturatzen urteekin erreflexuak galtzen ditugula.

Batzuetan, zebra bidera heltzean oinezkoek ez dute begiratzen ea autorik-edo datorren. Automatikoki bidera salto egiten dute. Eta aparkatzerakoan, sarritan ez dugu pazientziarik edukitzen.



**Jose Ignacio de Sola**  
DURANGO

Bide hezkuntzan interesa badagoela uste dut, jende guztiaren partetik. Nagusien

partetik handiagoa beharko luke, gure gaitasunak murrizten dabilzalako.

Sarritan behar ez dugun lekutik gurtzatzen dugu bidea, eta eskubide guztien jabe garela uste dugu. Oinezko asko begiratu barik irteten dira. Sustoren bat ere izan dut; errespeturik ez duten gidari asko daude-eta.

## Oroimena bizirik martxoaren 31n

Erasoan hildakoen omenez ekitaldiak egin zituzten

### > M.O.

Astelehenean bete ziren 77 urte italiar faxistek, Mola jeneralaren aginduz, Durango eta Elorrio bonbardatu zituzten egunetik. Durango triskantza eragin zuen erasoak: 336 hildako, hamarnaka zauritu, erai-kinak suntsituta... Erasoa hil ziren biktimen omenez hainbat ekitaldi egin zituzten 31ren bueltako egunetan. Astelehen eguerdian, kanposantuan, Gerra Zibilaren biktimak omendu zituzten udalak sustatuta. Iluntzean,

Gerediaga Elkarteak antolatuta bonbek kaltetutako Andra Mari elizaren alboan herritar ugari batu ziren, hildakoen oroimena bizirik dagola erakusteko. Ekitaldi hunkigarria izan zen.

Leire Bilbao idazleak oroimenaren eta bakearen aldeko manifestua irakurri zuen. Ostean, Juanito Gallastegi abade eta erasoaren lekukoak lore eskaintza egin ziren biktimei. Kriskitinekoek aurrekoa dantzatu zuten, eta Amaia Urzainkik urtemuga-ko kantua abestu zuen.



Gallastegi, Jasone Agirre aurkezleagaz. Txelu Angoitia (Gerediaga Elkarte).

## Instalazioak hobetzen dabilza udako igerilekuetan

### > M.O.

Durango udako igerilekuetan obrak egiten dihardute ur instalazioak hobetzeko. Uraren kontsumoa bajatzea, eta tenperatura epeltzea da udalaren helburua, eta 230.000 euro erabiliko ditu horretarako. PSE-EEK bul-tzatuta barneratu zuten ekintza

hori aurrekontuan. Izan ere, Pilar Rios bozeramailearen arabera, uda bakoitzeko 15.000 metro kubiko galtzen dira. Hori galara-zi gura dute ekartzen duen kalte ekologiko eta ekonomikoagatik.

Ur galera horiek igerileku txikian eta ertainean gertatzen dira batez ere. Ur asko etengabe berritu behar denez, tenperatura hotza sortzen da, eta, ondorioz, ez da umeentzako igerileku berezia erabiltzen.

Igerilekuak ekainaren 14ra-ko prest eduki gura dituzte, normaltasunez zabaltzeko.

### Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa

**anboto** komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-lurreta (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko apirilaren 4a, 12. urtea - 540. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo eta Nagore Aranburu.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi.  
**Zuzentzailea:** Jon Ander Urkiaga.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

# LOMCE hezkuntza legearen aurkako arrazoiek elkartuta

Bost ikastetxetako kideak batzartzen hasi dira Espainiako LOMCE legeri erantzuna eman guran

## > MARKEL ONAINDIA

Espainiako Gobernuak hezkuntzarako egindako LOMCE legea abenduan onartu zuten PPrek aldeko botoekin, eta datorren ikasturtean aplikatu gura dute. Baina gero eta aurkari gehiago dauzka. Joan zen astean Ikasle Abertzaleek deitutako greban makina bat gazte mobilizatu ziren –Durangon ia erabatekoa izan zen greba–, eta irakasle eta gurasoek ere egin zuten protesta zenbait lekutan, deialdia aprobetxatuta. Hori gertatu zen Durangoko Kurutziazan, Ibaizabal, Fray Juan de Zumarraga institutuan, Landakon eta Zabalaran. Izan ere, ikastetxetako kontseiluetan LOMCE legea aztertu dute, eta ez daude ados legearekin. Zentro horietako kideak batzartzen hasi dira ideiak trukatu, eta erantzuna bateratzeko asmoz. Bost irakasle eman dituzte arrazoiak.

“Nik uste dut askoz indar handiagoa hartzen dela erabakiak herri moduan hartzen direnean”, adierazi du Ibaizabal ikastolako Ane Solagaisuak. Legea interpretatu, sintesiak egin... Elkartuta dabilta beharrean, datorrenari aurre egiteko. Landako eskolako Rosa Mintegi legearen karga ideologikoz ohartarazi du: “Lege hau PPK bakarrik egin du, inogaz kontatu barik; zer ote dator? Ideologia bakar ba-

Rosa Mintegi: “Lege hau PPK bakarrik egin du, inogaz kontatu barik; zer ote dator?”

tek ezin du hezkuntza sistema bat antolatu”. Kurutziazgako Karmele Arrutiri lehenagoko sentsazioak dakartzkio legeak: “Berritua bueltatuko gara ikasle garaian eduki nuen eskola motara: lehiakorra, erlijiosoa eta autoritarioa. Adjektibo ezkor horiek guztiak etortzen zaizkit burura”. Zentralizatzailea dela, eta euskara eta euskal curriculumaz baztertzen dituela dio. Solagaisuak jarraitu dio: “Euskara guztiz hirugarren maila batean uzten duen erreforma da, eta gure identitatearen kontra jotzen du zuzenean”.

Ikasgaiak garrantziaren arabera hiru mailatan banatzen ditu legeak, eta euskara hirugarrenean dago. D ereduan euskaraz emango lirake enborreko ikasgaiak, baina gaztelaniari garrantzia ematea proposatzen

da. Horren ondorioez hausnartu du Zabalarra eskolako Izaskun Duñabeitiak: “Guk badakigu zenbat ikastordu eta zenbat baliabide dauzkagun. Bati itzelezko garrantzia eman behar bazaio, beste batzuei kendu behar zaie”. Egoera horretan A eredu indartuko dela uste du Arrutik.

## Doktrinamendua

Fray Juan de Zumarraga institutuko Javi Iraetaren ustez, doktrinamenduan ere eragin gura dute legeagaz. Lehen eta bigarren hezkuntzara errebalidak bueltatuko dira: iragazkia egiteko azterketak. “Horiek gaintzeko enborreko gai batzuk ikasi behar dituzu, eta %100ean Madrilek jartzen ditu”. Ikasgai guztien %50 dira enborrekoak. Mintegiren arabera, berdintasunagaz lotutako hainbat gai curriculumetik kanpo geratuko dira, “eta gehitu dituzte konstituzioa, erregeak, erakundeak, bandera eta gizartea”.

Gainera, errebalide ikasleak sailkatu edo bereiziko dituztela dio Arrutik. Adibide lez dio DBHko 3. mailan egingo dela bat, eta Batxilergoako kapaz ikusten ez dituztenak profesio baterako prestatzen hasiko direla 4. mailan.

## Europatik kanpo

Europar gaitasunen inguruko hezkuntza garatzen dabilzala azaldu dute, eta LOMCEk edukietan oinarritu gura duela. “Ez dira prozesuak ebaluatzen, emaitzak baizik”, esan du Mintegik. Horren atzean gazteak profesio batzuetara bideratu gura izatea dagoela uste dute.

Lan egiteko moduan ere igarriko dute aldaketa ikastetxeek. Izan ere, guraso, irakasle eta zuzendaritza batzen dituzten eskolako kontseiluak aholku organo hutsak izango dira, eta egun erabakitzaile dira. Zuzendaria gobernuak berak aukeratuko du, eta kritikoen iritziz kontrola handituko du horrela.

Frankismoaren ostean egin den zuzendaritza legea da LOMCE, eta aldaketa horiek ezegonkortasuna ekarriko dutela uste dute bost irakasleek. Baina ez dute etsi gura. Interesa edo kezka eduki ahal duten gainerako irakasle, ikasle eta herritarrak indarrak batzera gonbidatu dituzte. “Lege honi amen egin barik, ea denon artean antolatzen dugun erantzun posible bat”, esan du Duñabeitiak. Legeak lege, hezkuntzarako bide propio bat, “gurea”, lantzen hasteko beharra ikusten dute.



Ezkerretik eskumara, Duñabeitia, Arruti, Mintegi, Solagaisu eta Iraeta.

**NIRE ETXEA PREST BARRUAN ETA KANPOAN**  
2014ko MARTXOAREN 27tik APIRILAREN 27ra



**Brikolaje erraza**

~~€27,95~~

**€17,95** Bilkaria

**-%36**

**Ezkutatzea %90**



**Landare-hesi artifiziala**  
Neur. 1x3 m. 36 hagaxka. 5,98 €/m<sup>2</sup>  
Era berean, 1,5x3 neurrian eskura

**AKÍ Durango**  
Bl-632 errep., Montorreta k. [www.aki.es](http://www.aki.es)

**> ZORNOTZA**

# Geltokiko arrapala eskatzera joan dira udalbatzarrera

Zubizabalako bizilagunek tren geltokiko igogailuaren ondoan arrapala eraiki dezala eskatu diote udalari

**> JOSEBA DERTEANO**

Zubizabalako bizilagun batzuk joan zen barikuko udalbatzarrera joan ziren, eta tren geltoki ondoan arrapala baten beharria dagoela adierazi zuten. Udal ordezkariak prest agertu ziren aste honetan batzartu, eta egora bere osotasunean jorrazteko.

Tren geltokia kaleko lurzorugaz lotzeko aurreko azpiegiturak kendu, eta eskailerak, eta igogailua eraiki dituzte. Lanak amaitzeko gutxi falta da, eta igogailua martxan dago azken hiru hilabete eta erdian. Lehen arrapala bat ere bazegoen, baina orain ez. Zubizabalako bizilagu-

nek ingurune horretarako arrapala bat beharrezkoa dela uste dute (adineko eta elbarrientzat, besteak beste), eta hori jakinarazi zuten udalbatzarrean.

Aurretik, PSE eta Bildu alderdietako ordezkariekin ere batu izan dira. Igogailua begi onez ikusten dute, baina ez zaie nahikoa iruditzen. Izan ere, huts egin dezakeela uste dute: joan zen astean bertan goiz batez ez zuela funtzionatu gogoratu zuten. Bestetik, igogailua 06:00etatik 24:00etara dago erabilgarri. David Latxaga alkatea “edozein planteamendu entzuteko prest” agertu zen. Horrela, alderdi-



Goian, herritarrak arrapala eskatzen; behean, tren geltokiko azpiegiturak.

denetako ordezkari, bizilagun eta udal teknikarien arteko batzarra deitzeko prestutasuna erakutsi zuen. Aurretik zegoen arrapala ez zela asko erabiltzen

adierazi zuen, eta berria ere ez litzatekeela erabiliko, ondoan igogailu bat dagoelako. Igogailua egun osoz zabaltea hausnartu daitekeela adierazi zuen.

## Ogenbarrenan batutako 3.000 euro eman dizkiote Caritasi

**> JONE GUENETXEA**

Abenduan Ogenbarrenako merkatariak Maletatzen solidarioan eta beste ekintza batzuetan batutako 3.130 euroak Caritasi eman dizkiote. Ekimena auzoan beharrezana dutenei laguntzeko sortu zuten hainbat bizilagunek. Antolatzaileak “oso pozik” daude antolatutako ekimenez izandako erantzunagaz. Maletatzen solidarioa nabarmendu dute. Lasterketa honetan 150 lagunek parte hartu zuten. Clara García Senses gozotegiko arduradunak azaldu duenez, “onena auzoan sortu zen familiarterko giro gizatiarra izan zen”. Gabonetako txokoak izandako arrakasta ere azpimarratu du. Auto klasikoaren desfilea, eta umeentzako GP minimotorren zirkuitua ere antolatu zituzten.

# Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren egoitza Jauregibarriara dator

15 urterako lagapena egitea onartu du udalak

**> J.D.**

Interpretazio zentroa itxi zenetik Jauregibarria baserriko lehenengo solairua hutsik dago.

Interpretazio zentroak kostu ekonomikoa eragiten zion udalari, eta, gainera, eskaini beharreko dena eskainita zuela uste



Jauregibarriako baserriaren irudia, Zornotzako sarreran.

zuten udal arduradunek. Orain, hutsik geratutako espazio hori Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluari utziko diote, egoitza ofiziala bertan kokatu dezan. Orain arte Gernikan zegoen, behin-behineko toki batean. Hamabost urterako lagapena izango da, baina beste bost urtez luzatu daiteke. Lagapena EAJren eta Bilduren aldeko botoekin onartu dute. PSE abstentitu egin da lagapena “luzeegia” dela iritzita. Prozedura burokratikoak aurreikusitako epean gauzatzen bada, irailetik aurrera irekiko dute egoitza Jauregibarrian.

Doako lagapena izango da, baina mantentze-lanen gastuen kargu kontseilua egingo da. Beraz, udalari ez dio gasturik eragingo. Jauregibarriako azpiegiturretan, besteak beste, nekazaritza ekologikoari lotutako erakusketa iraunkor bat atonduko dute, askotariko hitzaldiak eskainiko dituzte –elkadura osasuntsuaren gainekoak, adibidez–, eta herriko nekazaritza azoketan parte hartuko dute.

## 40.000 euroko laguntza langabetuak kontratatzearen

**> J.G.**

2014ko Enplegurako Plan Integralean enplegua sustatzeko 40.000 euroko diru atala aurreikusi du udalak. Zornotzako Udalak langabezian dagoen pertsona bat kontratatzearen, edo aldi baterako kontratuak mugagabe izatera pasatzearen Zornotzako enpresek diru-laguntza jasoko dute. Enpresek edo bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak lan munduan integratzeko helburua duten irabazi asmorik gabeko elkarteek jaso ahal izango dute laguntza.

Kontratatuak pertsonen Zornotzan erroldatuta egon beharko dute, gutxienez, bost urtean jarraian, edo aldika 15 urtean. Kontratuak 2014. urtean egin beharko dira, eta, gutxienez, hiru hilabeteko iraupena izan beharko dute.

## Pintaketak gaitzesteko mozioa onartu du udalak

**> J.D.**

Zornotzan egiten diren pintaketak gaitzestea helburu duen mozioa onartu dute EAJren eta PSEren botoekin. Bildu abstentitu egin da. EAJk aurkeztutako mozioaren arabera, pintaketa batzuk “gustu txarrekoak” dira, eta “intolerantzia” mezuak dituzte: “elkarbizitzaren” kontrakoak dira. PSEko zinegotzi Antonio Castelletek Iñaki Azkunaren inguruko pintaketa kritikatu du. Bilduko Urko Lopezen berbetan, “horrelako pintaketak ez zaizkigu ondo iruditzen”. Bilduren abstentzioa arrazoitu zuen: “Adibidez, herrian agertu den pintaketako bat abortuaren legeari buruzkoa da. Nahi genuen mozioak jasotzea gatazka politiko, sozial eta ekonomikoaren gainean udalak konpromisoa hartuko duela irtenbideak bilatzeko”.



**HEKi**  
HERRI KIROL KLUBA  
- 656 782 552 -  
heki.iurreta@gmail.com

**Umentzako eta nagusientzako erakustaldiak eta antolaketak**



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

la erdia salduta!

Bixente Kapanaga, 19 behea · IURRETA · Tel.: 946 816 673  
www.zarateyelexpe.com



Ondoan aholkularitzako Nahia Bilbao, Leire Retolaza eta Agustín Espartagaz batera, Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea, Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea eta Behargintzako Augusto Uriarte.

## Amankomunazgoak ingurumen aholkularitza eskaini dio 91 enpresari

Aholkularitza eskaini die Durangaldeko enpresei 2012 eta 2013 urteetan, ingurumen araudia bete dezaten

### > JONE GUENETXEA

2012 eta 2013 urteetan Amankomunazgoak aholkularitza zerbitzua ipini zuen martxan, Durangaldeko enpresek ingurumen arloan indarrean dagoen araudia behar bezala bete dezaten, eta lehiakorragoak izan daitezten. Proiektuaren balorazioa publiko egin dute prentsaurreko bidez. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea, Augusto Uriarte Behargintzako arduradunak eta Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak gaiaren inguruko datuak ezagutarazi dituzte.

Ingurumen aholkularitza arloan, eskualdeko 91 enpresatan diagnostikoak eta laguntzara bideratutako ekintzak landu dituzte. Durangaldeko zortzi he-

rritako enpresek proiektuagaz bat egin dute: Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Iurretza, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

Proiektua hiru fasetan garatu dute. Lehenengo fasea, zerbitzua planifikatzera bideratu dute. 128 enpresatako espedienteak

Ingurumen arloko araudia betetzea, eta enpresak lehiakorragoak izatea da ekimenaren helburua

aztertu ondoren, ekimenean parte hartu duten enpresak hautatu dituzte. Bigarrenean, diagnostikoa egiteaz gainera,

enpresak bisitatu eta bakoitzak jarraitu beharreko bidea zehaztu dute. Eta hirugarrenean, laguntzara bideratutako ekintzak jarri dituzte martxan, enpresa bakoitzak bere buruari ezarritako helburuak bete ditzan.

Diagnostikoaren fasean, 91 enpresa bisitatu dituzte, eta hasierako 39 diagnostiko eta enpresa bakoitzaren neurria egindako 6 ibilbide osatu dituzte. Era berean, 55 enpresari 79 ekintzekin laguntza eskaini diote: baimen eskaerak eta proiektuen memoriak erredaktatzen lagundu diete, adibidez.

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentearen berbetan, martxan jarritako ekimenak lorpen ugari izan ditu. Hainbat arrazoi direla me-

dio, etenda zeuden espedienteak desblokeatzea lortzeaz gainera, gune berean dauden enpresentzako irtenbide bateratuak jarri dituzte martxan. Gainera, enpresa bakoitzari bere izaeraren eta beharren arabera zerbitzu pertsonalizatua eskaini diote. Bestalde, ingurumen arloan dauden baldintza berriak ezagutarazi dituzte, eta aplikagarriak diren aztertu dute.

### Udaletxeekin lanean

2013ko urtarrilean ordura arte egindako lana azaldu zieten udal ordezkariak, eta urtean bertan egin gura zituzten jardueren berri eman zieten. Enpresa bakoitzaren egoeraren inguruko informazioa ere helarazi zieten. Gainera, udal teknikariak zuzendutako formazio jardunaldia antolatu zuten ekintza eta irekiera lizentzien inguruan.

Proiektua amaituta, Amankomunazgoko arduradunak udaletako ordezkariak bildu dira, eta pozik daude emaitzagaz. Uriarteren ustez, "parte hartu duten udaletako alkateen balorazioa oso ona izan da".

Iñaki Totorikaguena alkateak Iurretako enpresen esperientzia azaldu du. "Orokorrean oso esperientzia ona izan da. 13-14 enpresari eskaini diote aholkularitza". Gaineratu du Iurretan enpresa txikiek ez dutela ingurumenera bideratutako sailik, eta ingurumen araudia betetzeko aholkularitza premiazkoa dela.

### Aurrekariak

Amankomunazgoak Udaltalde 21 eta Udal Agenda 21 martxan jarri zituenean, gizarte eragileekin hartu-emana estutzeari ekin zion. Eta enpresak ere dinamika horretan integratzea garrantzitsua iruditu zitzaion.

Amankomunazgoak 2010ean arlo honetan esperientzia pilotu bat jarri zuen abian. Ingurumen arloan aholkularitza tekniko eta juridikoa eskaini zien Durangaldeko 24 enpresari. Enpresa horiek jarduera sailkatuetan ziharduten, eta ez zuten araudia betetzen. Diagnostiko pertsonalen bidez legea betetzeko hartu beharreko neurriak azaldu zizkieten. Zarrabeitiak dioenez, "esperientzia oso positiboa izan zen. Hala ere, zerbitzu hau indartzeko beharraz ohartu ginen, enpresen helburuak betetzeko".

Proiektuak 192.563,79 euroko kostua izan du. Europako Gizarte Funtzak finantzatu du erdia, eta beste erdia Amankomunazgoak.



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango

**> BERRIZ**

# Soberakinei esker, Erraldeko zorra kitatu du udalak

Erraldeko gastuak zirela-eta, udalak 334.000 euro bueltatu behar zizkien bankuei



Mailegua hiltegia egiteko lurrak erosteko eta proiektua diseinatzeko eskatu zuten udalak; bakoitzak zati bat bueltatu behar du.

**> AMAIA UGALDE**

Aurreko urteko kontuen likidazioa eginda, 800.000 euroko soberakina dauka Berrizko Udalak, eta diru hori bankuekin dituen zorrak ordaintzeko erabiltzen hasi da. Erralde sozietateko gastuentzako mailegua izan da kitatzen lehenengoa. Udalak 334.000 euro bueltatu behar zizkien BBVA eta Laboral Kutxari. Urtarrilean, diru hori hamar urtean bueltatzeko kontratua

800.000 euroko soberakina dauka udalak, eta bankuekin dituen zorrak ordaintzen hasi da

sinatu zuen udalak bankuekin, baina ez du horrenbeste denbora behar izan; soberakineko diruagaz ordaindu du zorra.

Zorra kitatuta, maiatzaren 10ean beste mailegu baten azken kuota ordaintzeko moduan dago Berrizko Udala. Kreditu hori Markesaren etxean udaletxe berria egokitzeko lanetarako eskatu zuen udalak.

Bi mailegu horiek bueltatuta, udalak ez du zorrik izango banketxeekin. 2014ko ekintzetan “zerbitzuak mantentzea” du helburu, aurrekontuak onartu zituztenean azaldu zuten.

**> IURRETA**

## Udako tailerretan izena emateko aukera dago apirilaren 11ra arte

**> A.U.**

Aurten, uztailaren 1etik 24ra egingo dituzte udalak antolatutako udako tailerrak. Azken urteetan egin duten legez, umeei Maiztegi eskolan eta herrian zehar edukiko dituzte ekintzak, euskaraz eta ingelesez. Hasi da izena emateko epea, eta apiri-

Maiztegi eskolan eta herrian zehar edukiko dituzte ekintzak, euskaraz eta ingelesez

laren 11ra arte utzi ahalko da izen-emate orria Ibarretxe kultur etxean edo udaletxean.

Izena ematerakoan lehentasuna izango dute Iurretan errol-datutako umeei eta Maiztegiko ikasleek. Eurentzat 233,70 eurokoa da tailerren prezioa; gainerakoentzat 350,55 euro balio du. Tailerrak 09:00etatik 14:30era izango dira, eta bertan bazkalduko dute. Programaren aurkezpena ekainaren 25ean egingo dute, Ibarretxe kultur etxean.

## Eskola porrota eta motibazioa berbagai, Guraso Eskoletan

**> A.U.**

Juan Carlos Alonso psikologoak guraso eta hezitzaileentzako hainbat hitzaldi emango ditu maiatzean. Izena emateko aukera dago apirilaren 11ra arte.

Gurasoek seme-alaben hezkuntzari buruz izan ditzaketen hainbat zalantza argitzeko hitzaldiak izango dira. Maiatzaren 7an, 12an eta 19an emango dituzte euskaraz, eta 6an, 15ean eta 20an gaztelaniaz. Berbaldu guztiak 18:30etik 20:00etara izango dira, Ibarretxe kultur etxean.

Hezkuntza arloan 20 urteko ibilbidea eta prestigioa duen Juan Carlos Alonso psikologoak emango ditu hitzaldiak. Eskola porrotaren arrazoiak, seme-alaben motibaziorako gakoak eta arauen gaia landuko ditu hitzaldietan. Antolatzaileek azaldu dutenez, jarrera gomendagarri buruz berba egitea, eta arau zehatzak ematea da asmoa.

Hitzaldietan parte hartu gura duenak Ibarretxe kultur etxean eta Maiztegi eskolan eman dezake izena, eta baita [kultur-etxea@iurreta.net](mailto:kultur-etxea@iurreta.net) helbidera mezua bidalita ere.

**> GARAI**

## Lantziegoko eta Garaiko herritarrek harremana indartu dute

Lantziegora joan ziren senidetza ospatzera



Lantziegoko eta Garaiko herritarrek familia argazkian.

**> MARKEI ONAINDIA**

Joan zen zapatuan Lantziegora (Araba) joan ziren garaitarrak, hango bizilagunekin senidetza ospatzeko asmoz. Iaztik lotura ofiziala daukate bi udalek, herritarren artean hainbat urtean erlazioa egon ostean. Eta hartu-eman hori indartu zuten ekintzetan batutakoek.

Goizean ekitaldia egin zuten. Alfonso Luis González Lantzie-

goko alkateak eta Gontzal Sarrigoitia Garaikoak senidetza irudikatu zuten. Plaka bat ipini zuten, eta Garaiko Artearen kimu bat landatu zuten. Gero, herria hobeto ezagutzeko aukera eduki zuten: antzina olioaz zelan egiten zuten ikusi, eta udaletxe azpiko upategi zaharrak bisitatu zituzten, besteak beste. Bazkarian 120 lagun batu ziren, eta erromeria-gaz jarraitu zuten arratsaldean.

**> MALLABIA**

## Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiatu du UEMAK

**> JONE GUENETXEA**

Aurten, lehenengoz, errenta aitortpena euskaraz egiteko Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) martxan jarritako kanpainagaz bat egin du Mallabiko Udalak. Errenta aitortpena euskaraz zelan egin azaltzen duen UEMAREN eskuorria Mallabiko etxe guztietan banatu du udalak.

Euskarazko terminologia ezagutzera emateaz gainera, informazioa euskaraz jasotzeko jarraitu daitezkeen bideak azaltzen ditu UEMAK. Errenta aitortpen mekanizatuan, hitzordua hartzerakoan euskaraz egin nahi dela esan daitekeela gogorarazten du Mankomunitateak. Ogasunak errenta aitortpena bidaltzen duenean, proposamena onartzerakoan euskaraz jaso gura dela esanez gero, hurrengoak euskaraz jasoko dira.

Era berean, errenta aitortpena Internet bidez egiten dutenek, programaren euskarazko bertsioa aukeratu behar dute. Finantza erakundeetan ere euskaraz egitea eskatu dezakete.

**> ABADIÑO**

## Gerediagako Foru Zelaia zabalik egongo da asteburuetan

Aste Santuan ere zabalik egongo da Foru Zelaia

**> I.E.**

Komunikabideetara bidali duen oharrean jakinarazi du Gerediaga Elkarteak zapatu honetan, apirilaren 5ean, zabalduko dutela Gerediagako Foru Zelaia. Horrenbestez, asteburuetan eta Aste Santuan bisitariarentzat zabalik egongo da gunea.

Gerediaga Elkarteak, Bizkaiko Batzar Nagusiak, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak eta Abadiñoko Udalak adostu bezala, neguan 10:00etatik 18:00ak arte egongo da juntetxearen ingurua zabalik, eta 10:00etatik 20:00etara udan.

Irekiera ordutegi horregaz proba egingo dute datozen asteetan, eta “tarrean dauden erakundeek esperientziaren balorazioa burutuko dute”, ondoren, behin betiko ordutegia zehazteko.

Gerediaga Elkarteak aurreratu du beste ekimen batzuk ere bultzatzeko asmoa dutela Gerediaga Elkarteak, Bizkaiko Batzar Nagusiak, Durangoko

Merinaldearen Amankomunazgoak eta Abadiñoko Udalak, elkarlanean. Besteak beste, “seinaleztapen sistema baten diseinua” egin gura dute, bisitariak zelaiaren balio kultural eta artistikoa ezagutu dezaten.

Neguan 10:00etatik 18:00ak arte egongo da zabalik juntetxearen ingurua bisitariarentzat

“Batzartoki honen garrantzi historikoa ukaezina da”, azpimarratu du Gerediaga Elkarteak oharrean: “toki emblematikoa da”. Eskualdeko historian Gerediagako juntetxeak daukan garrantzia azpimarratu du: “600 urtean, gutxienez, Durangoko Merinaldeko Batzar Nagusien tokia izanik, gure eskualdeko leku historiko garrantzitsuena eta ikur nagusia da”.

**> DURANGALDEA**

# A8-ko beharginek protestak egin dituzte asteon

Gaurko ere lanuzteak deitu dituzte A8-ko langileek



Langileak protestan lurretako ordainlekuan, astelehenean.

**> AMAIA UGALDE**

Protestak egin dituzte asteon A8 autobideko beharginek, LAB, ELA eta beharginek osatutako komiteak deituta. Bizkai mailako lanuzteak egin zituzten astelehenean, eta gaurko ere deitu dituzte. Gaur goizean 07:30etik 09:30era, eta arratsaldean 17:30etik 19:30era izango dira geldialdiak. Hitzarmen kolektiboaren defentsa egin gura dute. “Akordio bat lortzeko enpresaren borondate eskasa dela-eta” egin dituzte lanuzteak.

Lan erreformaren aldeko eta hitzarmen kolektiboaren kontrako jarrera ikusten dute beharginek autobidearen kudeaketaz arduratzen den Gebisa enpresarengan: “Zuzendaritzak lan erreformaz baliatu nahi du, Bizkaiko Foru Aldundiak azaroan eman zuen jarraibide teknikoari jaramon egin barik”. Lan baldintzak okertzeaz gainera, Aldundiari kasu ez egitea “oso larria” iruditzen zaie.

Horretaz gainera, enpresak soldata eskala bikoitza sortu gura duela azaldu dute langileek:

“Ondorioz, lehen, bigarren eta hirugarren mailako langileak egongo dira”. Hitzarmena zaindu, eta lan erreformatik blindatu gura dutela azaldu dute, baina euren berbetan, “enpresa ez dago prest blindaje hori onartzeko”. Bizkaiko Foru Aldundiak kontratatutako enpresei jaramon “eskasa” egiten dietela salatu dute.

**Erabiltzaileei mezua**

Gutxiengo zerbitzuetako langileak egon arren, auto-ilarak sortu ziren astelehenean Iurretako eta Zornotzako ordainleketuetan. Erabiltzaileei barkamena eskatu diete langileek aldeaz aurretik, “gogoz kontra hartu” behar izan duten neurri horren eragozpenengatik.

Gaur goizean 07:30etik 09:30era eta arratsaldean 17:30etik 19:30era izango dira geldialdiak

## Urkijok udalen kontra hartutako neurriak kritikatu ditu Kontseiluak

**> M.O.**

Carlos Urkijo Espainiako Gobernuko EAEn duen ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundia eta 46 udal salatu ditu, euskara lehenesteko hizkuntza irizpideak ezartzeagatik. Tartean daude Otxandio, Mañaria, Izurtza eta Zaldibarko udalak. Kontseiluak Urkijoren erabakia kritikatu du, euskararen normalizazioaren kontrako neurria dela uste duelako. Kontratazio publikoetan hizkuntza irizpideak ipintzea eta Udaletik programa salatu ditu Urkijok.

Euskararen normalizazioaren kontrako neurri gogorra dela uste du Kontseiluak, eta horregatik mobilizazioak deitu ditu eguaztenerako hainbat herritan. Otxandion kontzentrazioa egingo dute, 20:00etan, udaletxearen aurrean.

**> ZALDIBAR**

## Bide publikoan terrazak ipintzeko ordenantza onartu dute

**> I.E.**

Terrazak ipintzeko udal ordenantza onartu zuten joan zen egueneko udalbatzarrean. Araudiaren alde egin zuten Bilduko sei ordezkariak eta PPko zinegotziak, eta abstenitu egin ziren EAJko eta PSE-EEko lau ordezkariak. “Irisgarritasunari loturiko gutxieneko baldintzak bermatu, eta terrazak zelan kokatu arautzeko” osatu du gobernu taldeak ordenantza. Araudia aplikatzeko, herriko 13 tabernari terrazaren kokapen egokiaren proposamena luzatu die udalak.

Jose Andres Urizar zinegotziak azaldu zuenez, 2011. urtean onarturiko araudia indarrean egon arren, azken urteetan udalak ez du betearazi, baldintza zurruneziak ipintzen zituelako. “Uste dugu soluzio posiblistena dela hau; taberna guztiei egin diegu terraza kokatzeko lekurik egokienaren proposamena”.

Ordenantzak proposatzen dituen aldaketetako batzuek aparkaleku plazak galtzea eragingo dutela azpimarratu, eta “gaia hobeto aztertu” behar dela esan zuen PSE-EEko Javier Tera zinegotziak. EAJko Nerea Garitagoitiak, berriz, galdera hau planteatu zuen: “Nork betearaziko du araudia?”. Udalak lizentziarik barik ipintako terrazak kendu ahalko dituela zehazten du ordenantzak.

**> ATXONDO**

## Masaje tailerra luzatu dute, harrera ona izan duelako

**> J.D.**

Atxondoko gaztetxeko gazte asanbladaren ekimenez hainbat tailer eta ikastaro antolatu dituzte. Masaje tailerra da horietako bat. Azkeneko saioa egin zuten, baina luzatzea erabaki dute, parte-hartzaileek eurek horrela eskatuta, gustura dabilzako. Apirilaren 10ean eta 16an beste saio bi egingo dituzte, 19:30ean. Horretaz gainera, apirilaren 7an, 19:00etan, pandero tailerra

Apirilaren 10erako eta 16rako masaje tailerreko saio bi antolatu dituzte Atxondoko gaztetxean

hasiko da, eta hilaren 9an Photoshop ikastaroa emango dute. Bestetik, nekazaritza tailerra apirilako azken astean hasiko da. Gainera, film eta dokumental emanaldiak ere egongo dira apirilean: hilaren 14an eta 21ean izango dira, gaueko 22:00etatik aurrera.

**Kontzertuak apirilaren 11n**  
Apirilaren 11n, musika kontzertu birekin gozatzeko aukera egongo da gaztetxean: Aggressive Combat eta Dirty Brothers. Arrasatekoak dira talde biak. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira, eta sarrera doakoa izango da.



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**GURE IKASLEEN AHOTAN**



**“Proiektuen bidez, taldekidetza lantzen dugu”**

Julen Azkue Energiaren Ingeniaritza graduako 1go maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoan.

**Zergatik aukeratu zenuen Energiaren Ingeniaritza? Eta zergatik MUN?**

Txikitatik ikasi nahi izan dut ingeniartzaren bat, eta lehengo urtean, titulu berri honen berri izan nuenean, ez nuen zalantzarik eduki. Orokorrean energian, baina bereziki energia berri-erazgarrien arloan lan eskaera nahiko handia dagoela iruditzen zait. Mondragonek ikasketa-metodo aktiboa du, eta horrek ere erakartzen nau unibertsitatea aukeratzeko garaian.



**Nola baloratuko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia?**

Oraindik ez daukat esperientzia handirik sei hilera bakarrik bukatu besterik ez baitut egin, baina gustura nago gelan sortzen den giroarekin eta baita kurtsoan zeharreko ikasketa eskakizunarekin. Batxilergotik hona alde sumatzen da, baina ikasi beharrekoa ondo landu ezkererako emaitzak ateratzen direla iruditzen zait.

**Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasketako metodologia? Alde praktikoa garrantzi asko ematen zaio?**

Ikasketako metodologia egokia iruditzen zait, eta proiektuak egiteko aukera oso aberasgarria da

**taldekidetza lantzen delako etorkizunerako. Alde praktikoa badu garrantzia, eta noizbehinka praktikak eginez ere klase astunak dinamikoago bihurtzen dira.**

**MUtik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?**

Mondragon Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana, nire gradutik aparte, euskarari eta gazteen egoerari orokorrean ematen zaion garrantzia da, proiektuen eta eskaintzen bidez. Agian, hobetzeko modura, azterketaren bat gaitzuta ez baldin badaukazu, erreperaketa hurrengo azterketekin pilatzen zaizula da, gaikakoak izaten baitira azterketak.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**> ELORRIO**

## Sorterrira bueltatu da Jon Irazola, 32 urtez iheslari izan eta gero

Iheslarien kolektiboak egindako iragarpenaren ostean, hainbat iheslari agertu dira euren herrietan



Irazola, joan zen domekan egin zioten harreraren. Argazkia: Gotz.

**> MARKEL ONAINDIA**

Joan zen ekainean konponbidari begira urratsak emango zituztela iragarri zuten Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboko kideek. Hausnarketaren berri eman, eta aurpegia eman zuten Miarrizten egindako ekitaldi batean. Duela aste bi, berriz, batzuek etxerako bidea hartuko zutela iragarri zuten. Egunotan hainbat agertu dira berriro euren herrietan, eta horietako bat izan da Jon Irazola elorriarra.

Duela 32 urte egin zuen ihes Irazolak, atxilotua izateko beldurrez. Geroztik erbestean bizi izan da, eta atxilotua ere izan zen iparraldean Batasunako operazioaren harira. Kolektiboko bozeramaileetako bat izan da. Iazko irailean *Anbotori* eskainitako elkarrizketan Elorrioz akordatzen zen: "Bizitza sozial hori, edozein momentutan karrikara atera, jendarekin egon, proiektuak elkarrekin muntatu...". Beste 500 bat iheslari daude, eta tartean Durangaldeko hainbat. Hasi dira bueltatzen; itzulera mailakatua izango dela azaldu dute kolektiboko kideek.

**> IZURTZA**

## Gimnasia saioan zumba egiteko aukera dago

**> JOSEBA DERTEANO**

Nagusien lokalean, astero egiten duten mantentze gimnasia saioak eskaintza berria izango du aurrerantzean. Orain arte mantentze gimnasia eta aerobika egiteko aukera eskaintzen zuten, eta, orain, zumba praktikatzeko modua ere egongo da astelehenetan eta egunetan, 20:15etik 21:15era. Horrela, kirola egin gura duen jendea erakarri gura dute asteroko hitzorduetara, ekimen honen sustatzaileek adierazi dutenez.

Zumba izeneko mugimenduek Hego Amerikako erritmoak dituzte oinarrian: saltsa, merengea, cumbia eta sanba, besteak beste. Helburua da dantzetan oinarritutako mugimenduen bidez gorputzaren malgutasuna indartzea. Abantailako bat da edozein adinetan praktikatzeko fitness modalitate aproposa dela.

**> MAÑARIA**

## Hilerriari buruzko batzarrera deitu dute 12rako

**> MARKEL ONAINDIA**

Mañariko Udalak hilerriari buruzko batzar baterako deialdia egin du, eta herritarrak horretaz informatu ditu gutun bidez. Apirilaren 12an izango da batzarra, 11:30ean, udalbatzaren aretoan.

Endika Jaio alkateak adierazi du gai garrantzitsua dela, eta, horregatik, garrantzitsua izango dela herritarrak bilerara gerturatzea. Kanposantuan hobirata daudenen familiartekoekin berba egin gura dute hilerriaren egoeraz.

Iritziak elkarrekin partekatu, eta neurri batzuk aztertuko dituztela azaldu du Endika Jaio. Etorkizunean obra batzuk egin beharko dira, baina, orain, behin-behineko neurriak hartuko dituzte.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

EIDER URIBE

Bildu

**Sahara**

Sahara herriaren errefuxiatu kanpamenleketan egoteko aukera, eta bertako errealitatea lehen eskutik ezagutzeko aukera izan dugu. Aljeriako lurraldeetan daude 1975az geroztik, beren lurraldea den Mendebaldeko Sahara Espainiak Marokoko eta Mauritaniako erregimenen esku utzi ostean.

Noiz arte egongo dira kanpaleku horietan? 1992. urteko irailean egin behar zen autoterminaziorako erreferenduma gauzatu arte, zeina NBEk onartuta daukan.

Laguntza asistentzialak bidertatzeko zenbait proiektu ezagutu ditugu, ospitaleak, ahalmen urriko umeentzako eskolak, emakumeen etxeak, ibilgailuen konponketetarako tailerrak, formazio guneak, gasolindegia... Guztiak ederto kudeatuta. Baina benetan azpimarratu digutena, Paco Etxebarria forentseak eta bere lan taldeak hobietan eginiko aurkikuntzak izan dira. Fadret Leguiaa-n zortzi gorpu aurkitu dituzte; marokorrek erail zituzten eta horietako hiruk gutxienez espainiako nazionalitatea zuten. 400 saharai baino gehiago daude desagertuta, eta lan horrek Marokok egindako genozidioari buruzko pista gehiago argitzen dizkigu. Benetan eskertzen dute hobien inguruan hasi den ikerketa lan hori.

Bisita batean geundela, asko gustatu zitzaigun mezu bat irakurri genuen "Hemen ez dira landareak eta zuhaitzak hazten, pertsonak baizik". Saharaien elkartasuna mundiala da, dena konpartitzen dute. Kanpamentuetan bizitzea zaila da benetan, baina beti daude irribarre batekin, eta borrokarako prest. Duintasunez eta indar handiz, badakite etorkizuna eurena dela eta irabaziko dutela.

Gaur eta beti, gora saharaiak, gora Fronte Polisarioa, Sahara libre!

## Intxorta asti elkartearen 25. urtemuga ospatuko dute bihar

Umeei aisialdirako alternatiba eskaintzeko asmoz sortu zen Intxorta 1989an

**> M.O.**

Elorrioko umei aisialdirako alternatiba bat eskaintzeko asmoz, hainbat gazte batu ziren 1989an. Intxorta asti elkarte jaio zen horrela, eta, ordutik hona, makina bat ume eta gazte elkartu izan dira ideia beraren inguruan. Sorrera hartatik 25 urte pasatu dira dagoeneko, eta urtemuga berezi hori bihar ospatuko dute.

25 bat begiralek osatzen dute taldea. Umetan Intxortako ekinzetara joandakoak, orain begirale bihurtuta. Horietako bat da Maialen Piña: "Guri eman zigutena eman gura dugu". Intxortan izen-emandako umeekin zapatuetan egoten dira, eta udarako kanpamentu zabalak antolatzen dituzte. Azken urteetan goraka joan da partaide kopurua; duela lau urte 40 haur inguru hartzen zituzten, eta iaz 120. Udalekuen xarma nabarmendu du begiraleak, eta umeek asko ikasten dutela uste du.

Bihar elkartzeko eta disfrutatzeko eguna izango da. 11:00etan puzgarriak eta tailerrak egongo

dira, plazan; 13:30ean poteoa egingo dute; eta 14:30ean argazkia aterako dute bazkalaurrean. 19:00etan erromeriari ekingo diote, eta musikagaz amaituko dute eguna. Hurrengo asteetan ere ekitaldiekin jarraituko dute.



Intxortako 20. urtemugan ateratako familia argazkia.

**momotox**  
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12  
48200 Durango  
Tel.: 946 811 006

katerin ardoak  
iñaki uribe

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
**saltsan.com**

**BODEGUILLA**

**TRAÑA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85



**> OTXANDIO**

# Frontoian txakur kakak ez uzteko mezua zabalduko dute ikasleek

Seigarren mailako ikasleek mezuak prestatu, eta udalak zabalduko ditu

**> JOSEBA DERTEANO**

Otxandioko herri eskolako pilotaleku publikoan txakurren kakak agertu izan dira. Eskolako gazteek sarritan erabiltzen

dute pilotalekua, eta deserosoa eta zikina da txakurren kakak aurkitzea. Horregatik, txakurren jabeak ohitura txar horien gainean kontzientziatzeko eki-

men bat prestatzen dabil eskola, udalaren laguntzagaz. Datzen asteetan jokabide zuzenak zeintzuk diren gogorarazi, eta gizalegezkoak ez diren ohiturak salatzen dituen idatzi bat prestatuko dute seigarren mailako ikasleek. Gero, idatzi hori eta pilotalekuan txakurren kakak agertu ziren egunetako batean ateratako argazkia udaletxera bidaliko dituzte. Udalak emango dio zabalkundea idatzi horri.

Udal arduradunen esanetan txakur kaken arazoa aspaldikoa da, eta herri osoko gune berdeetan gertatzen da. Iaz Otxandioko txakurren jabe guztiei gutun bat bidali zitzaizen betebeharrak gogoratzeko, eta hainbat kanpaina ere bultzatu izan dira, baina ez dute esperotako emaitzarik jaso.



Eskolaren ondoan dago pilotaleku publikoa.

## Herri-olaren gaineko azalpenak emango dituzte apirilaren 12an

Aurrera begirako plangintza osatuko dute

**> J.D.**

Otxandioko Udalak Herri-ola egitasmoaren orain arteko lana azaltzea, eta aurrera begirako plangintza osatzea helburu duen herri batzarra antolatu du apirilaren 12rako, 11:00etan, kultur etxean. Herrigintzan lan egiten duten eta lan egiteko prest

dauden herritar guztiei batzarra joateko deia egin diete udal arduradunek.

Herri-ola Otxandioren etorkizuna eraikitzeke egitasmoa da: hazkundera oinarritutako garapen eredu batetik, bizitza kalitatea helburu duen, eta iraunkortasuna, euskalduntasuna eta

herritarren parte-hartzea oinarri izango dituen garapen eredu justuago bateranzko trantsizioa lortu nahi du. Otxandioren etorkizuna eraikitzea da Herri-olaren helburua.

Aurrera begira, esaterako, *Espazio irekia* izenagaz ezagutzen den teknika erabiltzeko jardunaldia antolatu gura dute. Teknika horren bidez, jardunaldi horretan batutako jendea taldeka banatu, eta gai askori buruzko eztabaida abiatzen da. Parte-hartzaileak talde batetik bestera mugitu daitezke, euren ekarpenak egiteko. Batzarretako denborari ahalik eta etekinik handiena ateratzea da helburua.

**Andra Mariko iturria mugituko dute**

“Me llevaron un 12 de noviembre de 1926 y me volvieron a traer el 1 de enero de 1990 y ahora me vuelven a trasladar para colocar dos mesas y ocho sillas a favor de una terraza de un bar”. Hau da Durangoko Andra Mariko iturriak izango duen izkribu berria, Durangoko udalak taberna baten eskaera onartuz gero, interes publikoak alde batera utziz, interes partikularrak kontuan harturik.

Erabaki hori terrazaren araudi berriaren testuinguruan kokatu behar da. Durangotik zehar, terrazaren araudia dela eta, beste adibide deigarri batzuk ikusi ditugu; adibide gisa: eserleku publikoak zein aparkatzeko espazioak kendu izana horiek terraza bihurtzeko, berdeguneak asfaltatu izana, herri honetako hainbat plaza publiko (Santa Anakoa, kasu) mahaiz eta aulkiz bete izana...

Idazten dugunarekin argi utzi nahiko genuke

inondik inora ez gaudela tabernekin terrazak izatearen aurka, udal honen terrazaren araudiaren aurka gaudela baizik. Tabernak, desberdinak diren heinean, terrazaren baimena kasuz kasu aztertu behar litzateke, eta ez, orain arte egin den bezala, aurreko astakeria guzti horiek ahalbidetuta.

Iturriaren adibidea orain arte egin den araudiaren interpretaziorik larriena dela iruditzen zaigu. Udalak duen jarrera ezin daikete onartu, iturria berea izango balitz bezala.

Gure ustez, terrazak tokian tokiko ingurura egokitu beharko lirateke. Durangoko herritarrok ezin dugu onartu Durangoko Udalaren politikak interes pribatuetan oinarritzea, eta are gutxiago negozio gutxi batzuen menpean aritzea. Beraz, Andra Mariko iturria dagoen lekuan uztea exijitzen dugu!

Iraultza Unzueta Solozabal  
Unai Lizarralde Muñoz

**> DURANGALDEA ASTEON**

## Sillero zapata dendak banatu du Salerosketak Be Euskeraz zozketako bederatzigarren saria

**SARIA >** Mikel Urzelai Madariaga (90.190 zenbakiduna) izan da Durangoko Salerosketak Be Euskeraz zozketaren azken sari-duna. Sillero zapata dendak banatu du martxoaren 1ean egindako zozketan bederatzigarren tableta. Merkataritza guneetan euskararen erabilera bultzatzeko helburua daukan kanpaina da Salerosketak Be Euskeraz. Erosketak egiterakoan euskaraz berba egiten dutenak saritzen ditu ekimenak.

## Traña-Matienan 460 ume batuko dira domekan, Dantzari Egunean

**UMEEN DANTZARI EGUNA >** Durangaldean hamalau taldetan diharduten 460 gazte batuko dira etzi, Umeen Dantzari Egunean. Traña-Matienako Iluntze dantza taldeak egun osoko egitaraua prestatu du. Goizean kalejira egingo dute auzotik, gero bazkaritara joango dira, eta 17:00etan alardea eskainiko dute Traña plazan. Dantzari guztien artean, Iluntze taldeko 3 eta 17 urte arteko 44 dantzari parte hartuko dute ekitaldietan.

## Martxan dago lurretako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

**LEHIAKETA >** Aurten irailaren 28tik urriaren 5era izango dira lurretako San Migel jaiak, eta festak iragartzeko kartel lehiaketa martxan ipini du jai batzordeak. Ekainaren 20ra arte egongo da lanak aurkezteko aukera, eta egileak nahi duen teknika erabilita, gura adina kartel aurkeztu ahal izango ditu. Lanak euskarri digitalean eta fisikoan aurkeztu beharko dira Ibarretxe kultur etxean, DIN A2 tamainadun formatuan.

**Iritzia**

**astekaria@anboto.org**  
astearte 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodunentzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (farteak barne).

# Berbaz

Eneritz Trigueros Amantegi | Arkitektoa | Durango, 1987



## “Orain arte bitan zatituta egon den Durango lotzeko aukera dugu”

> JONE GUENETXEA

Tren geltoki ondoko parkingean sei kotxe egon dira aparkatuta elkarrizketaren uanean. Tren biltegia Lebariora noiz lekualdatuko duten ezin da jakin oraindik. Gelto-  
kitik irteten diren bidaiariak eskaileretan kontuz-kontuz dabilta eroriko diren beldurrez. Komuna behar duenak, ez du aurkituko. ‘Durango Operazioa’-ren anbizio han-

diko aurreikuspenak horrela gelditu dira. Baina inguru horrek badu etorkizunik. Eneritz Trigueros arkitekto durangarrak trenaren lurperatzearen inguruan oinarritu du ikasketa bukaerako proiektua. Orain Vienara doa lanera.

Zelan bururatu zitzaizun ikasketak bukaerako proiektua trenaren lurperatzean oinarritzea?

Ikasketak amaitzerakoan proiektu moduan eraikin bat diseinatzeke eskatzen digute. Argi neukan gaztetxearen ondoko lursailean diseinatuko nuela nire eraikina. Baina Durango bere osotasunean hartu behar nuela konturatu nintzen. Azken finean, trenaren lurperatzeak aukera ezin hobea ematen dio Durangori dituen hutsuneak betetzeko. Eraikina diseinatzeaz gainera, trenaren lurperatzea-

gaz libre gelditu den trenbide luze honentzako proposamen bat izan da.

**Durango osoa hartu duzu abiapuntutzat?**

Lurperatzeari esker 66.000 metro koadro libre gelditu dira. Horrela, guztira 120.000 metro koadroren izaera hobetuko da. Durango hazten jarraitu beharrean, azalera hori aprobetxatu egin beharko litzateke. Inguruan dauden beharrak asetu, eta, batez ere, iparraldearen eta hegoaldearen arteko lotura egin daiteke. Orain arte bitan banatuta egon den Durango lotzeko aukera dago.

“

*Arkitektoek dugun boterea amaitu egin beharko litzateke; teknikariak baino ez gara*

**Eraikitzerako orduan plangintza egokiak erabili izan dira?**

Orain arte erabili izan diren hirigintza ereduaren kritika egiten dut. Bat-batekoak dira, bat-batean auzune bat sortzen duten plangintzak dira. Alde Zaharrei garrantzi handia ematen diet. Astiro-astiro aldatzen eta moldatzen joan diren inguruak dira. Alde Zaharrak gertaera askoren metaketan ondorio dira.

**Proposamenzelan gauzatu daiteke?**

Aldaketa hiru fasetan egitea proposatzen dut. Zero fasea analisisa izango litzateke. Lehengo fasea egokitzea izango litzateke (harresiak bota, landaredia...). Bigarren fasearen helburua aktibazioa da. Hau da, hondar-lurrak erabilerarako aktibatu behar dira. Herritarren parte-hartzea eskatuko nuke aktibitate horiek aukeratzeko. Azkenengo fasea, berdentsifikazioa izango litzateke. Beharrezkoa balitz, eraiki egingo litzateke.

**Herritarrek aukeratu dezakete?**

Herritarren parte-hartzea oso garrantzitsua da. Denok gara erabiltzaileak, eta denok dugu iritzi bat. Arkitektoek erabiltzaileen iritziak kontuan hartu behar ditugu, eta horrela beraien auzoa imajinatzen duten moduan gauzaten saiatu behar dugu. Gai batzuen inguruan badakigu, baina inguru horretan bizi denak daki gehien espazio horretaz.

**Zure proiektuaren arabera, oinezkoek asko irabazi dezakete.** Zirkulazio berria beharrezkoa da herrian. Durango sei pasagunetara mugatuta egon da, baina orain trenaren lurperatzearekin fluxua asko hobetu daiteke, kotxeek erditik pasatzeko aukera dute-eta. Oinezkoentzako ere pasagune oso handiak sortu daitezke. Alde Zaharra, Amilibiako orubea eta Muruetatorrerraino dena oinezkoentzat moldatu ahalko litzateke.

**Berdeguneak aurreikusi dituzu.**

Sistema berdeen lotura egin ahalko litzateke. Durangok badauzka sistema berdeak, kalitate oneko parkeak, baina ez daude lotuta. Denen artean lotura berde jarrai bat egitea posible izango litzateke.

**Mugikortasunaren arloan proposamen zehatza egin duzu.**

Mugikortasun ekologikoagoa lortzea beste helburuetako bat da. Durangon industria desagertu egin da, eta kanpora eramanez dute. Industria garbia ere eramanez dute, bulegoak, esate baterako. Hara heltzeko, kotxea hartu beharrean, minibus sistema bat proposatu du. Horrela, urrun dauden auzuneetako jende nagusiak ere zerbitzu publiko hori erabiliko luke. Autobus hori Abadiñoraino eta Mañariraino joango litzateke.

**‘Durango Operazioa’ proiektuari zer deritzozu?**

Trenaren lurperatzea guztiz beharrezkoa eta Durangorentzat onuragarria izan da. Hala ere, lehiaketa itxi bat izatea ez zitzaidan gustatu. Bost arkitekto famatu baino ez zituzten gonbidatu. Pentsatzen zuten nazioarte mailako ospea duten arkitektoen lana hobea izango zela. Baina leku bakoitzeko ezaugarriak ulertu behar dira. Bat-batean bost dorre, merkatalgune bat eta tren geltoki bat eraikitzea aurreikusi zuten. Hain proiektu zurrunez ez dute egoera berrietara moldatzeko gaitasunik. Ez dago dirurik, eta orain ezin da ezer egin.

**Badago dirurik libre gelditu den espazioa egokitzeke?**

Orain arteko ereduetan zerbait saltzea zen helburua, horrekin dirua irabazi, eta inguruan inbertitzeko. Orain da garaia horrelako prozesuak aldatzeko. Nire proposamena ahalik eta xumeena izan da. Dauden harresiak bota, eta zolaketa eta landaredia ipintzea proposatu dut. Dirua dagoenean aktibazioa eta dentsifikazioa egin daiteke. Minimo batzuk ezarri daitezke, eta hori ez da hain garestia.

# Egun bakoitzean sorkuntzarako fabrika bat zabalik, Durangoko Zilar Astean

Hainbat diziplina artistikori buruzko ikastaro, tailer, mahai inguru eta emanaldiak izango dira

## > ITSASO ESTEBAN

Arte sorkuntzaren azken emaitza, hau da, amaitutzat emandako artelana edo ikuskizuna kontenplatzera baino, sortzaile legez jarduteko gonbita luzatuko du 2014ko Zilar Asteak. Durangon diziplina guztietako arteen sorgune diren fabriketako ateak zabalduko dituzte Plateruena-ren bueltan elkartutako Durangoko herri kulturagintzako eragileek, egitaraua

osatzeko *arte* gaitzat hartuta. Apirilaren 7tik 12ra, euren lan jarduna erakutsiko dute sortzaileek, urte osoan euren lantegi diren Durangoko San Agustin kulturagunean, Plateruenean, Arte eta Historia Museoa, Udal Liburutegian, musika eskolan eta Sapuetxe gaztetxean. Sorkuntza prozesuak erakustea izan da aurtengo apustua, eta askotariko ikastaroak eta tailerrak eskainiko dituzte antolatzaileek

helburu horregaz. Kalea ere hartuko du, gainera, Zilar Asteak: apirilaren 10ean, Alde Zaharrean eskainiko dute *Hanka baltzon artea* ikuskizuna.

Askotariko arte adierazpideak izango dira Durangoko aste tematikoko protagonistak: antzerkia, arte plastikoak, argazkigintza, literatura eta musika, esaterako; 2010eko lehenengo ediziotik egin den bezala, herriak herriari eskainiak.



Sorkuntza prozesuak erakutsiko dituzte sortzaileek Zilar Astean. Irudian, '1937 gaur' lanaren emanaldia, 2012ko aste tematikoan, Plateruenean.

## EGITARAUA

// Apirilaren 7an, San Agustin kulturagunean  
**Arte eszenikoaren fabrika**

· 'Ametsen faktoria' argazki erakusketa, 12:00-14:00/16:00-20:00  
· 'Espazioa, erritmoa, espresioa' tailerra, 18:30-20:30

// Apirilaren 8an, museoan

**Arte plastikoaren fabrika**

· Arte sormena zuzenean, 16:00etan  
· 'Durangaldeko arteaz hausnartzen' mahai inguru, Mikel Onandiagaz

// Apirilaren 9an, Udal Liburutegian, eta Hitz eta Urriko liburu dendetan

**Literatura fabrika**

· 'Literatura ere artea da' erakusketa  
· Literartetrukea

// Apirilaren 10ean, Alde Zaharrean

**Zilarginon fabrika**, Plateruenean

· 'Arte tipi' tailerrak, 10:00-12:00  
· 'Artea gastronomian', 13:00etan

**Kale fabrika**

· 'Hanka baltzon artea', 19:00etan

// Apirilaren 11n, musika eskolan

**Musikaren fabrika**

· 'Birziklapenaz doinua' tailerra

// Apirilaren 12an, Sapuetxe gaztetxean

**Argazki fabrika**

· Zalaa Fuertes-en 'Egun bat, argazki bat' erakusketa, 12:00-14:00/18:00-20:00  
· 'Zure begirada da!' ikastaroa, Zalaa Fuertes gidari, 18:00-20:00

**Literatura fabrika**, Udal Liburutegia

· 'Abangoardiak euskal literaturan' tailerra, Iñigo Aranbarri idazleagaz

\* Izen-ematea: antolaketa@plateruena.net

## “Sorkuntzaren magia partekatu gura dugu”

Antzerki jolaserako espazio bilakatuko du Karrika taldeak, apirilaren 7an, Durangoko San Agustin kulturagunea; Karrikak eskainiko du Zilar Astearen barruko lehenengo tailerra

**Zuena da egitarauko lehenengo ekimena. Zer pentsatu duzue Zilar Astearako?**

**Eneko Sagardoi:** Aurreko urteetakoe-kin alderatuta, bestelakoa da aurtengo Zilar Astearen planteamendua: egun bakoitzean sormen fabrika batek hartuko du protagonismoa. Guk San Agustin, gure etxea, bihurtuko dugu fabrika, jendea antzerki sorkuntzaren fabrika erakusteko. Uste dugu badagoela beharrezana jendea antzerkiaren parte sentiarazteko, eta ideia horretatik atera da tailer hau egiteko gogo. Argazki erakusketa txiki bat eta tailerra egingo ditugu.

**Jon Gorroño:** Tailerragaz nahi duguna da parte hartzen duen jendeak bere azalean bizi dezala antzerkia zer den.

**Beste urte batzuetan, prozesua barik, emaitza, obra bat, erakutsi izan du Karrika antzerki taldeak Zilar Astean.**

**E.S.:** Bai, horrela izan da. Iaz *Inungane* estreinatu genuen Zilar Astea, eta oraindik ere martxan dago. Oso oparoa izaten da beti Zilar Astearako egiten dugun ekar-

pena. Baina ikuslea hartzaile bakarrik baino, eragile aktibo izatea gura dugu. Hori da aurtengo Zilar Astearen ildo. Batetik, fabrikaren egindako piezak erakutsiko ditugu; taldearen historiako obren argazkiekin transmitituko dugu hori. Bestetik, fabrikaren martxan dagoen katea ere erakutsiko dugu. Publikoa kate-lan horren parte izan ahalko da.

**J.G.:** Martxan dagoen fabrika bat izango da San Agustin. *Ametsen faktoria* izendatu dugu ekimena, sorkuntza eta bere sua sentiarazi gura dugulako.

**E.S.:** Asko poztu nau Zilar Astea gaia *arte* izateak. Arte guztiekin gertatzen da jendeak eskola bakarrik ikusten dela: dela antzerki obra, dela amaituriko koadroa, edo dela beste edozer. Oskol hori apurtzea, eta azpialdean dagoena ikusten uztea oso interesgarria da.

**Zelakoa izango da tailerra?**

**E.S.:** *Katxik*, *Nonak*, *Txotxek* eta neuk gidatuko dugu tailerra. Bakoitzak gure antzerki ibilbidetik gehitu ditugu tai-

lerrerako ariketak. Jolas horiei forma emanda garatuko dugu tailerra.

**J.G.:** Sorkuntzaren magia partekatu gura dugu jendeagaz, eta esperientzia hori euren azalean bizitzera bultzatu.

**Karrika taldean praktikatzan dituzue horrelako ariketak?**

**E.S.:** Bai, izan ere, antzerki eskola da Karrikaren jatorria: antzerki jolasa... Azkenaldian, hainbeste obragaz jolaserako parte hori galdu egin dugu hein batean. Horregatik, geu ere emozionatuta gaude hori berreskuratzeko. Lagunen batek urtero esaten du Karrikan hasi nahi duela, baina hainbeste proiektu dauzkagunez martxan, zaila da kide berriak hartzeko



Jon Gorroño eta Eneko Sagardoi, Karrikaren entsegu lokalaren sarreran.

une egokia bilatzea. Hau izan daiteke jakin-mina duen jende hori hartzeko unea.

**Ez da behar ezelako esperientziarik parte hartzeko?**

**J.G.:** Karrika taldea anitza da zentzu guztietan, eta tailer honetan ere ahalik eta jende gehien batzea gura dugu, energia eta mugimendu gehiago sortzeko.

**Erakusketan zer egongo da?**

**J.G.:** 1998. urtean Karrika sortu zenetik egindako lanaren argazkiak batuko ditugu; kamera analogikoagaz egindakoak, taldearen hasieran egindakoak eta Txelu Angoitia argazkilariarenak erakutsiko ditugu formatu handian.

## &gt; MUSIKA

**Antzinako melodiak eta horiei buruzko argibideak**

Antzinako musika lantzen duen Durangoko Khantoria taldearen emanaldia, hitzaldi-konzertu formatukoa, hartuko du Durangoko Arte eta Historia museoa, apirilaren 11n. *Durangoko ganbera-musika zaharra?* izenburua du emanaldiak, eta 1833. urtean Durangoko txistularia zen Carlos Bergaretxeren bost doinu interpretatuko ditu emanaldi horretan Khantoriak. Ohi duten bezala, interpretatzen dituzten doinuen inguruko azalpenak emango dituzte Khantoriako kideek. Datorren barikuko emanaldian, Nerea Aizpuru biolontxeloagaz, Elena Arbonies klarineteagaz eta Karol Argiarro txistuagaz ariko dira Khantoriako kideekin, eta *Kontrapas deitu zuten zortziko bati buruzkoak* ikerketa aurkeztuko du Ander Berrojalbizek.

## &gt; ANTZERKIA

**La Zarandaren obra San Agustinen ikusgai**

Domekan eskainiko dute 'El régimen del pienso'

La Zaranda -Teatro Inestable de Andalucía la Baja- taldearen *El régimen del pienso* antzezlan berrienaren emanaldia izango da apirilaren 6an, domekan, 19:00etan, Durangoko San Agus-

## &gt; AHOZKO LITERATURA

**Bost herrialdetako kontalarien ahotik, mundua Durangaldean**

Berrizen, Elorrion eta Durangon ariko dira munduko kontulariak

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Kolonbiako, Venezuelako, Aragoiko, Euskal Herriko eta Brasilgo kontulariak gonbidatu dituzte Munduko Kontu Kontulariak jaialdira aurten. Durangon, Elorrion eta Berrizen ariko dira, besteak beste.

Alekos kontulari kolonbiarrak, esaterako, *Cuentos y cantos de los últimos tiempos* ikuskizuna dakar Elorrion: apirilaren 11n, 22:00etan, Arriolan eskainiko du emanaldia, eta 9an eta 10ean, ipuin kontaketa tailerra gidatuko du bertan.

Programazioan parte hartzen duten Durangaldeko hiru herrietan saioak eskainiko ditu, bestalde, Toña Piñeda kontulariak. Emakumeen istorioak dakartzatza Piñedak: ekilibristenak, amamenak, printzesenak eta sorginenak, adibidez. Apirila-

ren 11n, 20:00etan Berrizen, eta 22:00etan Elorrion ariko da. Apirilaren 12an, Durangoko liburutegian izango da entzungai.

Programa honen barruan ariko dira beste hiru ipuin kontulari ere: istorioz eta tramanku-

luz beteriko maletagaz dator Oswaldo Pai aragoiarra, *Kontako banizu...* ikuskizuna eskainiko du Bego Alabazán euskaldunak, eta helduentzako zein umeentzako saioak eskainiko ditu, Clara Haddad brasildarrak.



Helduentzako zein umeentzako saioak eskainiko ditu Clara Haddad brasildarrak.

## &gt; MUSIKA

**Sarrera guztiak agortu dira Silboberriren Bilboko saiorako**

BBVA Fundazioak antolatzen duen musika garaikideko zikloan parte hartuko du, apirilaren 8an, Durangoko Silboberriri Txistu Elkarteak. *Txistua musika garaikidean* izenburuko emanaldia izango da Bilboko. Antolatzaileek esan dutenez, sarrera guztiak saldu dituzte aurrez.

Batetik, Carlos Ibarra, Carlos Villasol, Hilario Extremiana, Gabriel Erkoreka eta Iñaki Estradaren obrak interpretatuko dituzte, eta, bestetik, David Cantalejo eta Mikel Chamizo sortzaile gazteen kantak estreinatuko dituzte.

Txisturako musika berritzailea eskainiko du Silboberririk, eta baita txistua beste hainbat instrumentugaz batzen duten sorkuntzak ere.

## &gt; POESIA

**Begoña Eguenek poesia liburua aurkeztuko du Durangon, gaur**

*Esencia de mujer* liburuaren aurkezpena, eta Durangaldeko poeta biren errezitaldia hartuko ditu, Durangoko Bibliotekak, gaur arratsaldean. 19:00etan hasiko da ekitaldia; Begoña Eguen idazle durangarrak *Esencia de mujer* poesia liburua aurkeztuko du, irakurraldi baten bidez. Eguenagaz batera, Vicente Moreno abadiñarrak ere errezitatuko ditu poemak.

Begoña Eguen idazle durangarrak 'Esencia de mujer' poesia liburua aurkeztuko du Durangon

**GEURE DURANGALDEA****LIBE MIMENZA**

Kazetaria

**Memoria zor diegu**

Oraindik etxean entzunak ditugu gogoan, asko sufritu dutenen negarra ukitzen dugu argazki zaharretan. Ahazteak hiltzea dakar.

Orduko terroristak demokratikak dira gaur, inolako barkamenik eskatu gabe, damuaren definizioaz arduratu gabe. Haiek ere armak utzi eta bide politikoen alde egin zuten, aparatu politiko eta judizialen kanoiak polboraz ondo betez.

Eta guk terrorista izaten jarraituko dugu barkamena eskatu ostean ere. Klase kontuak konpai! Biktimak eta biktimak ei daude.

Lagunak, familiak eta gertukoak minez urratuta sentitzen ditugu. Ez da pose bat. Semea akabatu dioten amaren samina da. Laguna sententzia zain duenaren egonezina. Asteburu 40 minutuz bizi den gatibuaren itzala. Herrira 32 udaberriren bueltan itzuli denaren arnasa.

Noski, gure trintxeren beste aldean ere badira biktimak, zuloak. Baina ai... zulo pertsonal horien eskaparate publikoan ez du hotzik egiten, ordea; beroa da garailearen melodia. Eta gure aitona-amonen hiltzaile, torturaztaile, diktadore, zentsuraztaile eta lagunak, gezurrez jositako errelatoarekin enkantean aritu diren fartsante kriminalek, gure urratuak ezabatu nahi dituzte, minaren jabegoa pribatizatu. Aizue, ez dago reset botoirik. Kareak ez du memoria ezabatzen ahalmenik.

Memoria ez digute domestikatu, gure (h)istoria ez dute erraustuko. Iraganak dakar oraina, hauxe da geroaren bezpera: duela 77 urte bonbaz txikitu zizkiguten etxeak, gaur ez dute zulo zirrikitu bat ere irekiko gure memorian. Bide izkinak hilotzez beterik ditugu oraindik.



Hogeita hamasei urte daramatza La Zarandak lanean.

**El régimen del Pienso**  
La Zaranda, Teatro inestable de Andalucía La Baja

**Apirilaren 6an - 19:00etan**

San Agustín KULTUR GUINEA  
DURANGOKO UDALA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia  
www.plateruena.net

**DAVID @UAPO** APIRILAK 4 - 22:30ean 14/16 euro  
DAVID GUAPO  
BAKARRIZKETA

**aRtea** APIRILAREN 7TIK 12RA  
ZILAR ASTEA 2014  
Egitaraua: www.facebook.com/plateruena

APIRILAK 12 - 21:00etan Sarrera+baque bat=10 euro  
**POTOLOGUAK**  
BAKARRIZKETA

Eguneko menua astelehentik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**Hemen agertu gura badozu deitu!**

**946 217 902**

# EDERTASUN GIDA



Ana Camarero.

## Betileen luzapenak

### Zelakoak dira zuek eskaintzen dituzuen betile-luzapenak?

Betile-luzapenak banaka ipintzen dira, betile naturalen gainean. Luzapen horiek leunak eta arinak dira, eta ez dute distirarik sortzen. Betile naturalen imitazioak dira. Gainera, ez dute naturala kaltetzen. Luzera, lodiera eta kurbadura ugaritakoak daude, ura jasaten dute, eta eurei esker ez da beharrezkoa errimela erabiltzea.

### Zer alde dago beste batzuekin konparatuta?

Betile sintetikoak gogorak dira, ez dira oso malguak, eta distira egiten dute. Gainera, azalean itsasten dira.

### Zelan erabili behar dira?

Bost eta zazpi aste bitarteko iraupena daukate, baina betile naturalen erorketaren araberakoa da. Komeni da bigarren eta hirugarren astean artean betetzeko lan bat egitea. Tratamenduaren osteko 24 orduetan ez da komeni uragaz kontaktua edukitzea. Bestelakoan, bizimodu normala egin ahal da. Prezioa tratamenduaren denbora eta betile kopuruaren arabera ezartzen da.



## ILE-APAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

**Nobedadea!**  
**Betile-luzapena**  
**20%ko**  
**beherapena**

Lehen 50€ orain 40€

• Apirilaren 1etik 30era •

Goienkalea, 16-1. esk • 48200 Durango  
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

> **ANTZERKIA**

# Topaklown: Clown kode teatrala ezagutzeko ikastaro eta emanaldiak

Ikastaroak izango dira Durangon, apirilaren 17tik 20ra, antzerkiko clown teknikan sakontzeko

> **I.E.**

Antzerkiko clown teknikari buruzko formakuntza ikastaroak eta kalitate handiko antzerki emanaldiak eskainiko ditu, apirilaren 17tik 20ra, Topaklown-ek Durangon. Gorka Ganso topaketako zuzendariak, ikastaroetako bat emango duen Pablo Ibarluzea aktoreak, Mari Jose Balier zinegotziak eta Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko arduradunak aurkeztu dute Topaklownen bigarren edizioa.

Bizitzari beste ikuspuntu batetik begiratzeko gonbita da Topaklown. Kode teatral horretara gerturatzeko proposamen erakargarriak dakartza publiko orokorrarentzat zein antzerkiko sortzaileentzat.

Clownaren arloan maila handia duten atzerriko eta Euskal Herriko profesionalak emango

dituzte zortzi ikastaroak. Besteak beste, *El placer del juego* ikastaroa emango du Marcelo Katz pedagogo eta clown argentinarrak; *Curso de imbecilidad* Pep Vilak; *Excéntricos, chiflados y humor absurdo* Christian Atanasiuk; eta *Aquí y ahora* Lila Monti argentinarrak. Oso arin bete dira ikastaroetako plazak; iaz 70 ikaslek hartu zuten parte, eta aurten, dagoeneko, 80 lagunek eman dute izena.

Zortzi ikastaroez gainera, beste horrenbeste antzerki emanaldi eskainiko dituzte apirilaren 17tik 20ra, Durangoko San Agustinen. Erdiak doakoak izango dira, eta 8 euroko sarrera izango dute areto barruko emanaldiek –San Agustingo ikuskitzun horietara joateko 16 euroko bonua ere eskuratu daiteke—. Besteak beste, Marcelo Katz ar-



laz arrakasta handia izan zuen ekimena egonkortzea da bigarren edizioarako ezarritako helburua.

gentinarraren azken obra eta Ganso&Cia taldearen *Walkman* lanaren jendaurreko estrenua hartuko ditu Topaklownek.

Iaz izandako arrakasta “egonkortzea” da bigarren edizioaren helburua. Aurkezpenean esan zuten, “harrigarria” izan zen publikoak eta sortzaileek iaz topaketari egin zioten harrera, eta horrek erakusten du “badaudela eskari bat eta hutsune bat, eta Topaklownek betetzen dituela hutsune horiek”.

## ANTZERKI EMANALDIEN EGITARUA


• **APIRILAREN 17an**  
**18:00** Ganso&Cia, Bartolome Ertzila Musika Eskolako plazan  
**20:00** Christian Atanasiu, San Agustin kulturguneko sarreran  
**22:00** Marcelo Katz, San Agustin kulturgunean

• **APIRILAREN 18an**  
**20:00** Bapatean, San Agustin kulturguneko sarreran

**22:00** Brigada Dadá, San Agustin kulturgunean  
 • **APIRILAREN 19an**  
**20:00** Matxin, San Agustin kulturguneko sarreran  
**22:00** Cabaret Topaklown, San Agustin kulturgunean  
 • **APIRILAREN 20an**  
**20:00** Ikastaroen jam saioa, San Agustin kulturgunean

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



## Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 9 • 18:00  
 Maiatzak 24 • 18:00

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
 943 73 97 65



# **Kirola**

## Mugarra Triatloi Taldea: Hamar urtez korrika, bizikletan eta igeri

Mugarra Triatloi Taldekoek hamargarren urteurreneko jaialdia egingo dute, bihar, Durangon



### > **MARKEL ONAINDIA**

Mugarra Triatloi Taldeak hamar urte bete ditu aurten, eta bihar ospatuko dute egun osorako prestatutako egitarau batez. 12:00etan, Ezkurdin batuko dira, eta triki-poteoa, bertsolariak eta jolasak egongo dira aukeran. Gero, Plateruenean bazkaldu, eta, ostean, musika eskainiko dute Idoia Bediagak eta Luhartzek. Bazkalosteko

erromerian sarrera librea egongo da, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Dagoeneko hamar urte pasatu dira, beraz, triatloia egiten zuten lagun batzuk elkartu, eta talde bat osatzea erabaki zutenetik. Sortzaileetako bat da Serafin Bereziartua *Txela*: “Triatloia ez zen ezaguna orain hamar-hamaika urte; Durangaldean ez zegoen ezer”. Astiro-as-

tiro pausoak ematen joan ziren. Bigarren urterako arropa atera zuten, Zarate-Elexpe eta Egoien enpresen babesagaz. Hirugarren urtean herri lasterketa bat egitea pentsatu zuten, eta horrela jaio zen Duatloi Herrikoa, San Fausto bezperan urtero arrakasta handiz egiten dena. “Iaz 700 lagun batu ginen. Herri mailan ezagutzea lortu dugu”, adierazi du Bereziartuak.

Gerora federatuen duatloia etorri zen, Euskal Herri mailan ospea lortu duena. Baina aurten ezin izan dute antolatu, Herri-zaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzagaz data ezartzeko arazoa eduki dutelako. “Bizkaiko talde guztiok elkartu behar dugu ea zer egiten dugun. Duela hamar urte gu bakarrik geunden, baina, orain, Abadiñon, Zornotzan, Garain eta Galdakaon ere tal-

deak daude. Gero eta federatu gehiago, gero eta indar handiagoa”.

### Lotsak kenduta

Bestalde, iaz herri krossa antolatu zuten lehenengoz. “Uste dut hamar urtean gauza dezente egin ditugula”, esan du Bereziartuak. Urteotan Mugarra taldetik egindako lanak eragina eduki du Durangoko kirolzaleen artean. Triatloia herriratu dute, ekintzen eta herri lasterketen bidez. Gero eta jende gehiago dabil korrika edo bizikletan: “Lehen jendeari lotsa ematen zion kalean korrika egiteak, batez ere,

“Triatloia ez zen ezaguna orain hamar-hamaika urte; Durangaldean ez zegoen ezer”

“Lehen jendeari lotsa ematen zion kalean korrika egiteak, batez ere, neskei”

neskei. Orain hamahiru urte ez zenuen ikusten neskarik bizikletan. Lotsa hori kentzea lortu da, eta oso pozik gaude”.

Batzuek lehiatan parte hartzen dute, eta Gurutze Frades Espainiako txapelduna da horren erakusle. Baina ez da nahitaezkoa lehiatzea. “Aukera ona da zapatuetan bizikletan ibiltzeko, igerilekura joateko...”. Afizioagaz disfrutatzea da Mugarra taldekoen helburu nagusia.

## Ume eta gazteen artean afizioa sustatzen dute triatloi eskolagaz

Gaur egun 70-80 ikasle inguru daukate Mugarrako Triatloi Eskolan



Eskolaz kanpoko jarduera lez garatzen dute triatloia umeek eta gazteek.

### > **M.O.**

2008an triatloi eskola sortu zuten Mugarrakoek. Oihana Quesada taldekidea begirale zela, ume eta gazteen artean triatloia sustatzen hasi ziren eskolaz kanpoko jarduera lez. Euskal Herri mailan ez zegoen triatloi eskolarik, eta horregatik ez zitzaien erraza egin sortzea, Bereziartuak azaldu duenez: “Ez genekien erreferentziak nondik hartu”. Baina lortu zuten aurrera ateratzea, eta urterik urte sendotzen joan da. “Umeentzako aukera polita da. Gero eta jende gehiago dator”. Gaur egun 70-80 ikasle artean daukate, edukitako arrakastaren seinale.

Kirola berez indibiduala izan arren, talde izaera bul-tzatzen dute gazteen artean: “Taldea lez entrenatzen ikasi dezatela da gure asmoa”. Iñigo Lariz mendi lasterkariaren eta Roberto Corujoren laguntza

ere badaukate entrenamenduak garatzeko.

### Udalekuetako inskripzioa

Triatloi eskola ikasturtean garatzen dute. Baina udarako zerbait zabala sortu gura zuten, eta udalekuak eskaintzen dituzte. Edozein umek eta gaztek parte hartu ahal du, eskolako kide izan edo ez. Ondo pasatzeko helburuz, hainbat ekintza egiten dituzte: mendira joan, bizikletan ibili eta kanpoko igerilekuetara joan, besteak beste.

Ekainaren 23tik uztailearen 18ra dira udalekuak, eta dagoeneko hasi da inskripzioa [www.mugarratt.com](http://www.mugarratt.com) webgunean. Ahalik eta arinen apuntatzea gomendatu dute, iaz kopurua bete -100 inguru- eta inskripzioa itxi egin behar izan zuten-eta. Lau astez egon gura dutenek 155 euro ordaindu beharko dituzte, eta aste bakarra 45 euro kostako da.

> **TXIRRINDULARITZA**

## Movistarrek talde indartsua ekarriko du Zornotzako Udaberri Klasikara

Apirilaren 13an da lasterketa; obren ondorioz aurten ez dute Autzagane igoko; Movistar taldea eta Alejandro Valverde dira irabazteko hautagai nagusiak



Babesleak, udal orkezkariak eta antolatzaileak, atzo, Zelaieta zentroko auditoriumean egindako aurkezpenean.

> **JOSEBA DERTEANO**

Amorebietako txirrindulari elkarteak antolatzen duen Udaberri Klasikak 60. ekitaldia izango du aurtengoa. Autzaganeko obren ondorioz, ibilbidea moldatu egin behar izan dutela da nobedade nagusia. Taldeei dagokienez UCI Protourreko talde bakarra etorriko da: Movistar.

Amorebietako klasika apirilaren 13an izango da, domeka. Nafarroa kalean izango ditu irteera (09:25ean) eta helmuga. Autzaganeren ordez, Muniketa behin igoko dute Arrianditik, eta, Urrutxuako itzulia osatu ostean, birritan Zugastietatik. Ibilbidearen moldaketak bi ondorio ditu. Batetik, baliteke, oro

har, aurreko aldietakoa bezain gogorra ez izatea, baina Muniketarako igoera guztiak nahiko segidan daude, eta borroka polita sortu daiteke. Bestetik, azken aldapatik helmugara ohikoa baino bide luzeagoa dago, hamalau kilometro, eta ihesean doanak segundo batzuen aldea baino gehiago beharko du helmugara

alde eginda heltzeko. Ibilbide berriak aurrekoaren ia luzera berbera izango du: 171,5 kilometro.

> **Guztira 12 talde**

Guztira 12 taldek parte hartuko dute. Horietatik talde bakarra da Protour liga profesionalekoa: Movistar. Ondoren, UCI Kontinental mailako talde profesional bat dator: Caja Rural. Gainerako talde guztiak Kontinental mailakoak dira, tartean Euskadi taldea, Portugalgo lau talde, eta Errusiako, Serbiako eta Filipinetako bana.

Lasterketa irabazteko fabrito argia Movistar taldea da. Datozenen zerrendari bere horretan eusten badiote, Alejandro Valverde murtziarra izango da talde burua. Orain arte hiru bider irabazi du Amorebietako klasika: 2003, 2004 eta 2009an. Fede Etxabek ere hiru garaipen ditu (1997, 1999 eta 2004).

Euskadi Fundazioko Illart Zuazubizkar abadiñarra eta Movistarreko Beñat Intxausti zornotzarra izango dira Durangaldeko ordezkariek.

> **Gazte mailako lasterketak**

Asteburu honetan gazte mailako lasterrekak egongo dira. Zapatuan kadete (11:00etan) eta junior (16:00etan) mailakoak, eta domekan 23 urtez azpikoa (10:00etan). Azken horiek 109 kilometroko ibilbidea osatuko dute helmugaratu aurretik.

**ADITUAREN TXOKOA**

**Mikel Aranguren**

Futbola

**Boluntarioritza falta da futbol taldeetan**

Gaur egun futbol talde guztiek arazo handi batekin egin dute topo, boluntarioritza faltarekin, hain zuzen.

Futbol taldeetako zuzendaritza klubaren jarraitzaile diren eta ordainik jasotzen ez duten pertsonen osatzen dute. Horren ondorioz, umeen gurasoek osatutako zuzendaritzak sortu dira, zeinak beraien seme-alabak klubean izanda, aurretik zuzendaritzan kargu bat izanik edota beselako lanetan laguntza emanik (partiduetarako sarrerak saltzea, errifak saltzea, tabernan lan egitea...) postu goren hortara heldu diren.

Guzti horrek dakarren ondorioa, futbol talde xumeen identitate galera edota desagertzea izan daiteke, eguneroko jardunean bertan buru-belarri lan egiten duen pertsonarik ez baitago.

Borondatez lan egiten duten pertsonen gabezia, konpromisoa, sakrifizio nahiz elkartasun faltarekin lotuta egoten da. Hori gure gizartean argi eta garbi ikus daiteke, "ordaintzen ez badidate, beste batek egin dezala" bezalako esanetan.

Urteak aurrera joan ahala, "bokazionalki" eta taldearen ongizate eta koordinazio egokia bilatzen zuten pertsonen osatutako zuzendaritzetatik, postu hori lortzeaz "interesatuta" dauden pertsonetara igaro gara, eta, ondorioz, egoera penagarriak sortu dira geure taldeetan.

> **SKATE**

## Bizkai mailako topaketa egin dute Kurutziagan

6 eta 8 urte arteko gaztakoak batu ziren jardunaldian



Skatelari gazteak Kurutziaga ikastolan egindako topaketan.

Joan zen domekan Bizkai mailako 6 eta 8 urte arteko skatelari gazteen topaketa antolatu zuten Kurutziaga ikastolan. Egurrezko arrapala batzuekin osatutako zirkuituan erakustaldiak eskaini zituzten bertaratu ziren 20 gazteek. Txapelketa barik, topaketa bat egitea gurago izan zuten, helburua ez zelako txapelketa bat aurkitzea, skatelari gazteek elkar ezagutu eta elkarrekin patinatzea baino.

Kurutziaga ikastolaren eta skatelari batzuen ekimenez aurten, lehenengo bider, skatea praktikatzeko aukera egon da ikastolako orduetatik kanpora. Izandako harreragaz pozik daudela adierazi du antolatzaileeta-

ko bat den Ander Olabarriagak, eta aurrerantzean ere Kurutziagako eskaintzagaz jarraitzeko asmoa erakutsi dute.

> **Eskola kirolaren barruan**

Harrera on hori ikusita, Bizkai-ko patinaje federazioan eskola kirolaren barruko eskaintzan sartzea proposatu zuten ekimenaren sustatzaileek, eta baietz esan zieten. Akordio horren barruan kokatzen da Kurutziaga ikastolan egindako topaketa. Durangaldeko skatelari gazteek gainera, Mungiako eta Bilboko hainbat batu ziren Durangora. Maiatzean beste topaketa bana egingo dute Mungian eta Bilbon.

**hitz** artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

**HELDUENTZAT  
ERRAIK**  
Danele Sarrigarte

**UME ETA GAZTEENTZAT  
UDABERRIKERIK ANKERRENA**  
U. Iturriaga eta A. Sanvi

**MUSIKA  
77  
Bide Ertzean**

**GALLASTEGI**  
www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carniceria autorizada

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO



**PNEUMATIKOAK**



**%90**

**EKO DESKONTUA  
2. PNEUMATIKOAN**

**Pneumatiko aldaketa: 15,60€+BEZa (unitatea)**  
Barne: eskulana (muntaketa eta doikuntza) + balbulak\*  
+ kontrapisuak + turismoen hondakinen kudeaketa



\*: Sentsore gabeko balbulak



**MARKA GUZTIETAKO  
AUTOEN KONPONKETA**

**ASEGURU - ETXE GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU\***

**KARROZERIA**



**%10**

**EKO BALIOA  
DUEN TXARTELA**

**ZURE HURRENGO KONPONKETA EDO MANTENTZE-LANERAKO**  
Karrozeria konponketetan, fakturaren (BEZa barne) zenbatekoaren  
%10eko balioa daukan txartela opari.  
200€ gehienez.

**MEKANIKA**



**ZURE AUTOA JASO ETA  
BUELTATZEN DIZUGU**

**BANAKETA-UHAL KIT-A**

- GUTXIENEZ %30EKO DESKONTUA ORDEZKO PIEZETAN
- %10EKO DESKONTUA ESKULANEAN

**IAT AURREKOA**

- IAT AURREKO AZTERKETA BEREZIA DOHAINIK
- %25EKO DESKONTUA ORDEZKO PIEZETAN
- %10EKO DESKONTUA ESKULANEAN

Eskaintza guztiak 2014/02/01etik 2014/06/30era egongo dira indarrean



**BEIRA ALDATZEARREN  
NABIGATZAILE BAT OPARI**



MUTUAMADRILEÑA izan ezik.

**TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A. CITROËN ETXEKO ZERBITZU OFIZIALA**

Padureta 1 industrialdea - 48215 IURRETA tel.: 946 811 108 tabira@tabira.redcitroen.com http://redoficial.citroen.es/iurreta

## &gt; XAKEA

# Belaunaldi berria gogor dator Abadiñon eta Larrasoloetan

Abadiñoko talde bik eta Larrasoloetako batek mailaz igotzea lortu dute; Elorrioko Zaldi Baltza B eta Zornotzako talde bi, aldiz, jaitsi egin dira



Durangoko Larrasoloeta taldeko gazteak. Larrasoloeta.

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Amaitu dira Euskadi zein Bizkaia mailako xake ligak, eta eskualdeko taldeek gozotik eta gazitik, bietatik utzi dute. Emaitzarik onena orain hiru astekoa izan zen, Abadiñoko talde nagusiak Euskadiko Lehenengo Mailatik Ohorezko Mailarako igoera lortu zuen-eta.

Bizkaia mailako ligetan gazteek sorpresa atsegina eman dute. Izan ere, Hirugarren Mailatik Bigarrena igo diren hiru taldeak Durangaldekoak dira: Larrasoloeta B (lider) eta Abadiño D eta Abadiño E. Maila horretan jaun eta jabe izan dira,

laugarren sailkatuari gutxienez zazpi puntuko aldea atera dietelako. Larrasoloeta xake taldeko ordezkarien berbetan, "emaitza positibo hauek belaunaldi berriari esker etorri dira, eta baita azken urteotan xakelariak lehiatzeko erakutsi duten motibazioagatik ere".

Maila Gorenean Abadiño B-k eta Elorrioko Zaldi Baltzak ezin izan dute igoerarik lortu, baina bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu dira denboraldi ona eginda. Zoritxarrez, maila horretan talde bakarra igotzen da, eta postu hori Altzaga Leioarentzat izan da. Bigarren Mailan

ari den Abadiño C ere igoeraren atarian geratu da; denboraldi oso ona osatu ostean, puntu batetatik ihes egin die igoerak.

**Zaldi Baltza eta Zornotza** Lehenengo eta bigarren mailatan etorri dira albiste txarrak. Lehenengo Mailan Zaldi Baltza B-k eta Zornotzak maila galdu dute. Maila honetan alde handia egon da behealdeko postuetan, eta bost puntura geratu zaie salbazioa.

Zornotza C ere Bigarren Mailatik Hirugarrenera jaitziko da: puntu bira bakarrik geratu zaio salbazioa.

## &gt; SASKIBALOA

## Tabirakoren Udaeskolak irekita du izen-ematea

Ekainaren 23tik uztailearen 4ra izango da

Tabirako-Baquek Udaeskolaren zazpigarren aldia eskainiko du ekainaren 23tik uztailearen 4ra. Udaeskolan askotariko ekintzak egiten dituzte –eskalada hormara irteera, esate baterako–, baina batez ere saskibaloian oinarritutako udalekua da. Goizetan entrenamendu saioak egingo dituzte, eta arratsaldetan ikuspuntu ludikoago batetik helduko diote saskibaloari.

Udalekuak garatzeko hizkuntza bakarra euskara izango da. Aurtengo aldia "inoiz baino ilusio handiagoarekin" antolatzen dabilzala adierazi dute zuzendaritzako kideek, euren le-

gegintzaldian egingo den azken udalekua izango delako.

Erabilgarri dituzten azpiegiturak kontuan hartuta, gehienez 150 gazterentzat ireki dute izena emateko epea. Udalekuak 2000-2007 urteen artean (biak barne) jaiotako gazteei zuzenduta daude. Izen-ematea honako e-mail honetan egin daiteke: [tabirako@gmail.com](mailto:tabirako@gmail.com). Bertan haurren izen-abizenak, jaio-tza data, ikasten duen ikastetxearen izena, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia zehaztu behar dira. Landakon Tabirakok duen bulegora ere joan daiteke izena ematera.

## &gt; TXIRRINDULARITZA

## Bizkaia-Durango taldera batu da Leire Olaberria

Leire Olaberria ikaztegiatarra fitxatu du Bizkaia-Durango txirrindulari taldeak. Olaberria espezialista da pistan, eta esprintetan amaitzen diren etapetan Bizkaiko taldearen aukera onenarikoa izango da. Olaberriaren helburua nazioarteko klasiak ezagutzeko izango da. Horretarako, aurtengo denboraldian pista eta errepidea uztartzeko asmoa du.

Palmares handia du Ikaztegiatarren txirrindulariak. 2008ko Pekingo Joko Olinpikoetan brontzezko domina lortu zuen, eta aurtengo Pistako Munduko Txapelketan bosgarren geratu da *omnium* proban.

## &gt; SASKIBALOA

## Zornotza ondo kokatuta dago playoffetarako

Zilarrezko mailako Adecco liga amaitzeko jardunaldi bi falta dira, eta Zornotza Saskibaloia Taldea igoerako playoffetarako postuan kokatuta dago. Bere eskuetan dago sailkapena, baina geratzen diren aurkari biak ez dira nolana hikoak. Zapatuan, 20:00etan, CB Prat taldea hartuko du etxean. Ez du ohi moduan domekan jokatu; federazioak ordutegi guztiak zapatu iluntzean batu ditu, inork abantailarik izan ez dezan. Prat taldea Zilarrezko mailako Adecco kopako gaur egungo txapelduna da. Azken jardunaldian Avilako El Bulevar izango du arerio.

## &gt; ATLETISMOA

## Dominarik gabe itzuli da Romero Budapestetik

José Luis Romero durangarrak bosgarren postua lortu du 200 eta 400 metroko probetan. Budapestetik jokatutako Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketan durangarrak ez zuen lortu podiumera igotzea. Juan Sampredo taldekidearen hitzetan, "nahiz eta Romerok lesio ugari izan dituen, sorpresa izan da podiumetik kanpo geratzea".

Durango Kirol Taldeko Ainhoa Insunza, Florentino Martín, Emilia Paunica eta Aurora Pérez ere txapelketan egon dira. Gainera, azken hirurek zazpi domina eman dizkiote taldeari; Martinek zilarra, eta beste biek urre bana eta bina zilar.

## &gt; AGENDA

## &gt; FUTBOLA

## HIRUGARREN MAILA

**Durangoko Kulturala - Zamudio**

· Zapatuan, 17:00etan, Tabira futbol zelaian.

## OHOREZKO MAILA

**Iurretako - Loiu**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaia futbol zelaian.

**Elorrio - Apurtuete**

· Domekan, 17:00etan, Eleizalde futbol zelaian.

## MAILA GORENA

**Abadiño - Abanto**

· Zapatuan, 16:30ean, Astola futbol zelaian.

**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)****Elorrio - Ugeraga**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalde futbol zelaian.

## HIRUGARREN ERREGIONALA

**Zaldia B - Amorebieta B**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarria futbol zelaian.

## &gt; ARETO FUTBOLA

## HIRUGARREN MAILA

**Elorrioko Buskantza - Tolosala**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

## MAILA GORENA

**Elorrioko Buskantza B - Ibaizabal**

· Domekan, 12:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

**Presion Break - Kurutzia**

· Zapatuan, 16:40an, Berrizburu kiroldegian.

**Sasikoa B - Erromotarrak**

· Domekan, 10:00etan, Landako kiroldegian.

## LEHENENGO ERREGIONALA

**Dantzari - Beseka**

· Zapatuan, 16:00etan, Iurretako Lanbide Hezkuntza institutuan.

## BIGARREN ERREGIONALA

**Presion Break B - Racing Tolosala**

· Domekan, 12:45ean, Berrizburu kiroldegian.

**Mendibeltz - Gu Lagunak**

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

## &gt; SASKIBALOA

## ZILARREZKO MAILA

**Zornotza ST - CB Prat**

· Zapatuan, 20:00etan, Larrea kiroldegian.

## LEHENENGO ERREGIONALA

**Anbotopeko - Txiki Bilvendin**

· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

**Zornotza - Jarrilleros**

· Domekan, 18:00etan, Ixerbekoa kiroldegian.

## BIGARREN ERREGIONALA

**Tabirako Baqué - Josebar Aguilas Salde**

· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

## &gt; MENDI LASTERKETA

## Saran eta Orion irabazle, García eta Ariznabarreta

Joan zen asteburuko mendi lasterketek durangar bi izan zituzten portagonista: Oier Ariznabarreta eta Dabid García. Ariznabarretak Sarako mendi lasterketa irabazi, eta 2010etik Aitor Osaren eskuetan zegoen marka ondu zuen. Emakumeetan Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak bigarren amaitu zuen Aitziber Ibarbia irabazlearengandik hiru minutu. Dabid García, aldiz, Orioko lasterketa irabazi zuen. Antolatzaileek azken unean ibilbidea moldatu behar izan zuten. Ibilbide luzeago eta gogorragoan ondo moldatu zen García, eta ia hiru minutu atera zizkion bigarrenari.

# HAUR HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA HAURTZAINDEGIA 2014-2015

ZURE SEME/ALABA 2013. edo 2014.  
URTEAN JAIO BADA, IZENA EMAN DEZAKEZU

ISO 14001:2004  
ISO 9001:2008

*jsa*  
**JESUITAK**  
Durango



## HAURTZAINDEGI ZERBITZUA: URREZKO Q- KUDEAKETAREN KALITATEARI EUSKAL SARIA 2013. URTEAN

Eusko Jaurlaritzaren urrezko Q-a, kudeaketaren kalitatearen euskal saria jaso dugu 2013. urtean. Sari honen bitartez Eusko Jaurlaritzak erakunde aurreratuenak aintzat hartzen ditu, eta horrek heziketa alorrean aritzen diren euskal erakunde onenen artean kokatzen gaitu.

Ikastetxe ezaguna eta aintzat hartua gara, eredu eleanitza duena, heziketa eta eskolaz kanpoko eskaintza osoarekin, kristau baloreen transmisioan konprometitua, hezkuntza ospearekin, goi-mailako hornidura eta instalazioekin..., eta etengabeko hobekuntzan.

## ETENGABEKO HOBKUNTZA: LAN BIZITZA ETA FAMILIA BIZITZA BATERATZEN

- 0 urtekoen gela (2014. urtean jaiotako umeak): heziketa eskaintza berria irailaren 1etik aurrera (uztaila barne) **IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK.**
- Urte 1ekoen gela (2013. urtean jaiotako umeak): irailtik uztailera bitartean eskainiko dugu zerbitzua, bi hilabete horiek barne. Izena emateko epea zabalik. **ORAINDIK PLAZA LIBREAK GERATZEN DIRA.**
- 2 urtekoen gela: irailtik uztailera bitartean eskainiko dugu zerbitzua, bi hilabete horiek barne. Familia-beharren arabera, ikastetxea 7:45etik 16:30etara egon ahal izango da zabalik, eta 19:00ak arte luza daiteke. Haurrak ezin izango dira egunero 8 ordu baino gehiago ikastetxean egon.

## ETENGABEKO HOBKUNTZA: ZERBITZU ETA GIZA KONPROMISOAN

Familiek, zentroa irekita egongo den 208 eguneko arreta zuzenagatik ordaindu behar duten kostua 11 hileko kuotatan zatitu egiten da, hilabete bakoitzean ikastetxea irekitzen den egun-kopurua kontuan izan gabe.

- **0 urtekoen gela (11 hilabete):**  
5 ordu edo gutxiago: 160 euro  
5 ordu baino gehiago: 200 euro
- **Urte 1ekoen gela (11 hilabete):**  
5 ordu edo gutxiago: 160 euro  
5 ordu baino gehiago: 200 euro
- **2 urtekoen gela (10 hilabete):**  
Eskola egutegia (09:00etatik 16:30era) : 82,30 euro (eskola materiala barne)  
Egutegi luzapena (07:45etik 09:00etara eta 16:30etik a 19:00etara) :120,00 euro (eskola materiala barne)  
Uztailean: tailerretako aukerako eskaintza.

San Jose Jesuitak ikastetxeak Solidaritza Fondo propioa du (barneko beka) gure ikastetxean bere seme-alabak izena eman nahi duten familiek egin dezaten, bere egoera ekonomikoa hartarako oztopo bat izan gabe.

**ORAIN 0 URTETIK 18 URTERA .....  
UNIBERTSITATERANTZ**



Kudeaketaren  
Kalitateari  
Euskal Saria  
2013  
Premio Vasco  
Calidad  
de Gestión



ADINAK

HAUR HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	DBH	BATXILERGOAK	UNIBERTSITATEA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
0 1 2 3 4 5	6 7 8 9 10 11	12 13 14 15	16 17	

Kurutziaga, 1 - 3 P.K. DURANGO Tel.: 94 681 00 50 Fax: 94 681 03 04 E-mail: sanjose@durangojesuitak.org

[www.durangojesuitak.org](http://www.durangojesuitak.org)





# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Apirilaren 12an, 21:00etan, Durangoko Plateruenean**

## Potologuak

Lehenago 'Bodologoak' ikusizuna eskaini zuten Mikel Pagadik, Egoitz Lasak eta Nagore Aranburuk dihardute 'Potologuak' obran. Umorea ardatz hartuta, gure gizartearen eta harremanen analisia egingo dute Txintxeta taldean baturiko hiru aktoreek bakarrik bidez. Antzerkian zein telebistan eskarmentu handia daukan taldea da Txintxeta, eta, apirilaren 12an, Plateruenean izango dugu.



**Antzerkia**

### :: BERRIZ

**Apirilaren 4an, 18:00etan, Kubik**, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

**Apirilaren 6an, 19:00etan, 'El régimen del pienso'**, San Agustinen.

**Apirilaren 7an, 18:30ean, 'Espazioa, erritmoa, espresioa' ikastaroa**, San Agustinen. Zilar Astea 2014.

### :: ELORRIO

**Apirilaren 4an, 17:00etan eta 19:00etan, Pirriñx, Porrotx eta Marimototsen 'Bizipoza'**, Arriolan.

### :: ZORNOTZA

**Apirilaren 11n, 21:00etan, 'Qfwfq, una historia del universo'**, Zornotza Aretoa.



**Erakusketa**

### :: DURANGO

**Apirilaren 12an, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara, Zalao Fuertes 'Egun bat, argazki bat'**, Sapuetxe gaztetxean. Zilar Astea 2014.

### :: ELORRIO

**Apirilean, egun osoan, 'Euskal Herriko mapak'**, Iturri kultur etxean.

### :: ZORNOTZA

**Apirilaren 7ra arte, Maite Piñeroren 'Poéticas aéreas'**, Zelaieta zentroan.



**Kontalaria**

### :: BERRIZ

**Apirilaren 11n, 12:15ean, Munduko ipuin kontalariak**, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

**Apirilaren 11n, 19:00etan, Munduko ipuin kontalariak**, Udal Liburutegian.

### :: ELORRIO

**Apirilaren 11n, 22:00etan, Munduko ipuin kontalariak**, Arriolan.

### :: IURRETA

**Apirilaren 4an, 17:30ean 3 eta 4 urte artekoak; 18:00etan 5 urtetik gorakoak, Oihana Etxegibel**, Herri Bibliotekan.



**Mahai ingurua**

### :: DURANGO

**Apirilaren 8an, 16:00etan, 'Arte sormena zuzenean. Durangaldeko arteaz hausnartzen'**, Mikel Onandia artearen historia-lariagaz, Arte eta Historia Museoan. Zilar Astea 2014.



**Bakarrizketa**

### :: DURANGO

**Apirilaren 4an, 22:30ean, David Guapo**, Plateruena Kafe Antzokian.

**Apirilaren 12an, 21:00etan, Potologuak**, Plateruenean.



**Solasaldia**

### :: DURANGO

**Apirilaren 12an, 10:00etatik 14:00etara, 'Abangoardiak euskal literaturan'**, Plateruenean. Zilar Astea 2014.

### :: ZORNOTZA

**Apirilaren 9an, 20:00etan, Iñaki Irasizabalen 'Odolaren mintzoa' liburuari buruzko solasaldia**, udal liburutegian.



**Irteera**

### :: ABADIÑO

**Apirilaren 6an, 09:00etatik 14:00etara, Urkiola-Olarreta-Mañaria**.



**Musika**

### :: BERRIZ

**Apirilaren 4an, 22:30ean, Ezinean + Kauta**, Hiltegeixe gaztetxean.

### :: DURANGO

**Apirilaren 5ean, 20:00etan, Tabira Musika Banda**, Andra Mariko basilikan.

**Apirilaren 11n, 19:00etan, Khantoriaren hitzaldi-kontzertua: 'Durangoko ganbera-musika zaharra?'**, Kuruztesantun.

### :: ELORRIO

**Apirilaren 4an, 23:00etan, Inkubo + Konfliktu**, gaztetxean.

### :: ZORNOTZA

**Apirilaren 10ean, 19:00etan, Soka Country**, Zelaieta zentroan.



**Tailerra**

### :: DURANGO

**Apirilaren 12an, 18:00etatik 20:00etara, 'Zure begirada da!' ikastaroa Zalao Fuertesegaz**, gaztetxean. Zilar Astea 2014.



**Zinema**

### :: BERRIZ

**Apirilaren 4an, 22:00etan; eta 6an, 19:00etan, 'Pelo malo'**, Kultur Etxean.

### :: ELORRIO

**Apirilaren 9an, 19:30ean, 'Familia bat alokatu S.A.'**, Iturri kultur etxean.



### :: DURANGO | ZUGAZA

#### Noe

Zuzendaria: Darren Aronofsky

- barikua 4: 19:30/22:00
- zapatua 5: 19:30/22:30
- domeka 6: 18:00/21:00
- astelehena 7: 18:30/21:00
- martitzena 8: 20:00

#### La bella y la bestia

Zuzendaria: Christophe Gans

- zapatua 5: 17:00

#### 2. ARETOA 8 apellidos vascos

Zuzendaria: E. Martínez-Lázaro

- barikua 4: 19:30/22:00
- zapatua 5: 17:00/19:30/22:30
- domeka 6: 19:00/21:00
- astelehena 7: 18:30/21:00
- martitzena 8: 20:00

#### La bella y la bestia

- domeka 6: 16:45

#### Oh boy

Zuzendaria: Jan Ole Gerster

- eguena 10: 20:30

### :: ELORRIO | ARRIOLA

#### 8 apellidos vascos

- barikua 4: 22:30
- zapatua 5: 20:00
- domeka 6: 20:00
- astelehena 7: 20:00

#### Lucius Dumben berebiziko bidaia

Zuzendaria: M. Ruiz de Austri

- domeka 6: 17:00

### :: ZORNOTZA

#### 8 apellidos vascos

- zapatua 5: 22:30
- domeka 6: 18:30
- astelehena 7: 18:30
- martitzena 8: 18:30

#### Dallas buyers club

Zuzendaria: Jean-Marc Vallée

- barikua 4: 22:30
- zapatua 5: 22:30
- domeka 6: 20:30
- astelehena 7: 20:15

#### La bella y la bestia

- zapatua 5: 17:00
- domeka 6: 16:30

## APIRILEKO AGENDA

4	<b>IPUIN KONTALARIA</b> - Oihana Etxegibel Iurretako Herri Biblioteka 17:30 3-4 urte bitartekoak 18:00 5 urtetik gorakoak
5, 6	<b>IURRETAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA</b> 9:30 Hainbat ibilbide (93-107 km).
5	<b>EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E.</b> 11:00 Udaberriko Saria mutilekin 47 km. Amorebieta-Etxano <b>IURRETA KIROL TALDEA - Futbol</b> 17:00 IURRETAKO A - LOIU A
7	<b>HAURREN IRAKURKETA KLUBA</b> Iurretako Herri Biblioteka 17:00 8-9 urte 18:00 9-10 urte <b>EMAKUMEEN LITERATUR TAILERRAK</b> 18:15 "Escritoras Norteamericanas del siglo XIX" Dinamizatzailea: Ana Arisqueta (Skolastika)
8	<b>HELDUENTZAKO IRAKURKETA KLUBA</b> 18:30 "Cavando el agua" - Iñigo Aranbarri
9	<b>ANDEREBIDE, IURRETAKO EMAKUMEEN ELKARTEA</b> Ibarretxe kultur etxea 18:30 Bide-oforuma "Precius" <b>HELDUEN IRAKURKETA TXOKOA</b> 19:00 'Jakobian eraikina' - Alaa Al Aswani
11	<b>BULARRETIK MINTZORA</b> 17:00 HHko 3, 4 eta 5 urteko gelakoak 18:00 LHko1. eta 2. mailak <b>EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E.</b> 19:00 Berrizko belodromoaren berririkitzea. Berriz

**> DENBORAPASAK**

**> Sudokua**

**1**

9				8	1			
3				6		4		1
	4			9		5		
			2					4
			9				6	3
1	6	8						
	5	6						
		3				6	1	
			4	7			3	

**2**

5				8		9		
		8		2				6
7	9	2						
	6	7					4	
				9		8	6	
	5			2	7	9		
			4	3				
6							7	9
2	3		5					

**> ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org  
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



> Zorionak **Sarrea** eta **Etxeba!** Iurretako lagun danen partez!



> Zorionak **Maialen!** Apirilaren 2an 11 urte egin dituzu. Musu haundi bat familia guztiaren partez.



> Apirilaren 6an **Iparrek** 3 urte beteko ditu. Zorionak etxeko guztion partez! Izugarri maite zaittugu txikitxu!



> **Andu Arrieta Eguen.** Zorionak etxekoan partez!



> 3 gaztetxo hauek urteak bete dituzte apirilaren 1ean, 2an ta 3an. Belarri tirakada kuadrilakoan partez!



> **Goizederrek** apirilaren 3an 6 urte bete zituen. Zorionak eta besarkada potolo-potolo bat gure Zengotiko printzesia, etxeko danon partez.



> Martxoaren 25ean jaio zen **Lier,** zorionak eta musu haundi bat amatxo Itxaso eta aitaxo Arkaitzi familia osoaren partez.



> **Oihan Mendibilek** apirilaren 4an 5 urte egin ditu. Zorionak zure famiaren partez, bereziki zure arreba Aialaren partez. Musu bat txapeldun!



> **Markel Briñasek** martxoaren 22an 7 urte bete ditu. Aita, ama eta Iraian partez, eta aittitte-amaman partez, zorionak!



> Zorionak **bikote!** Egun zoriontsu bat pasa, zuen lagunaren partez.

Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383



Zorionak **Amaia Elizaran!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

**> BOTIKAK**

**BARIKUA, 4 - 09:00-09:00**  
• **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)  
09:00-22:00  
• **Bengoa** (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)  
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)  
22:00-09:00  
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)  
**ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00**  
• **Irigoiñ** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
09:00-13:30  
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)  
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)  
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)  
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)  
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)  
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)  
• **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)  
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)  
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)  
• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar, 14)  
09:00-22:00  
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)  
22:00-09:00  
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)  
**DOMEKA, 6 - 09:00-09:00**  
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)

09:00-22:00  
• **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)  
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)  
22:00-09:00  
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)  
**ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00**  
• **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)  
• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar, 14)  
09:00-22:00  
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)  
**MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00**  
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)  
• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar, 14)  
09:00-22:00  
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)  
**EGUAZTENA, 9 - 09:00-09:00**  
• **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)  
• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar, 14)  
09:00-22:00  
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)  
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)  
**EGUENA, 10 - 09:00-09:00**  
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)  
• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar, 14)  
09:00-22:00  
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

**> TELEFONO INTERESGARRIAK**

SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 94 681 09 49  
Osakidetza ..... 94 600 72 00  
Ertzaintza ..... 94 466 93 00

**> GARRIAOK**

Euskotren ..... 902 54 32 10  
Bizkaibus ..... 94 448 40 80  
Pesa ..... 902 10 12 10  
Continental Auto ..... 945 286 466

**> TAXIAK**

Abadiño ..... 94 681 44 70  
Matiena ..... 606 459 988  
Durango Geltokia ..... 94 681 10 01  
Elorrio Geltokia ..... 94 682 00 40  
J.L. Uriarte ..... 670 402 002  
I. Estebez ..... 670 678 273  
M. Galeano ..... 670 409 330  
Iurreta ..... 94 620 15 65  
Taxi auzunea ..... 688 618 690  
Berrizko auzo taxia ..... 620 022 800

**> UDALAK**

Abadiño ..... 94 621 55 30  
Atxondo ..... 94 682 10 09  
Berriz ..... 94 682 45 84  
Durango ..... 94603 00 00  
Elorrio ..... 94 658 27 12  
Garai ..... 94 681 63 93  
Iurreta ..... 94 620 12 00  
Izurtza ..... 94 681 35 48  
Mallabia ..... 943 17 14 61  
Mañaria ..... 94 681 89 98  
Otxandio ..... 945 45 00 20  
Zaldibar ..... 94 682 70 16

**> UDALTZAINGOA**

Abadiño ..... 94 621 55 33  
Berriz ..... 94 682 40 36  
Durango ..... 94 603 00 00  
Elorrio ..... 94 682 02 18  
Iurreta ..... 94 620 08 88

**SUDOKUEN SOLUZIOAK**

**7**

1	9	6	5	7	3	8	2
4	6	6	5	7	3	8	2
6	7	3	2	8	5	4	6
8	2	2	5	6	3	4	1
1	3	6	7	2	8	4	5
3	8	6	7	2	2	7	4
6	7	8	6	9	4	6	5
5	5	4	2	1	3	8	7
3	8	5	9	1	2	6	7
8	8	4	5	9	2	1	6
6	5	2	1	2	7	6	8
2	9	2	3	4	8	7	2

**1**

8	1	2	6	4	7	9	3	5
4	6	3	8	2	5	6	1	7
7	5	6	1	3	9	8	4	2
1	6	8	3	7	4	2	5	9
2	7	4	9	5	8	1	6	3
5	3	9	2	1	6	7	8	4
6	4	1	7	9	3	5	2	8
3	8	7	5	6	2	4	9	1
9	2	5	4	8	1	3	7	6

11° 19° ZAPATUA ☁

9° 24° DOMEKA ☀

12° 23° ASTELEHENA ☁

8° 14° MARTITZENA ☁

## “Langabezian gelditu eta taxi plaza bat eskatu nion udalari”

Orain dela urte eta erditik dago martxan auzo taxi proiektua Berrizko auzoetako bizilagunentzat

**> MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Auzo taxi proiektuaren sortzaileetarikoa bat da Javier Larrinaga. Proiektua orain dela urte eta erdi ingurutik dago martxan. Udalarari taxi plaza eskatzea bururatu, eta, harrezkero, proiektu honetan murgildurik dabilza Javier Larrinaga eta bere lankidea den Javier Isasi.

**Nori bururatu zitzaion auzo taxi proiektua abian ipintzea?** Proiektua udalari bururatu zitzaion, baina horren aurretik neuk eskatu nien taxi plaza bat. Botikako laguntzaile lanetan ibili nintzen, baina langabezian geratu eta zerbait egitea bururatu zitzaidan. Orduan, udaletxean taxi plaza bat eskatzea bururatu zitzaidan, eta beraiei proiektu hau otu zitzaion. Egia esan, hasieran, eskaria egin nuenean, ez nekien oso ondo mundu honek nola funtzionatzen zuen. Baina, orduan, udaletxekoei herririko auzoak herrira hurbiltzeko proiektu hau bururatu zitzaion, eta harrezkero martxan da. Orditik hona bi lankide gaude herritarren zerbitzura.

**Zein da auzo taxiaren xedea?** Asmo nagusia baserrietako eta auzoetako herritarrak Berrizera hurbiltzea da. Horrela, auzoetako herritarrek medikuarengana zein herriko dendetara joateko, edota herriko ekintzez gozatzeko aukera izango dute. Gainera, autoa erabili gabe merke bidaiatzeko aukera ezin hobea dute.

**Taxi zerbitzu arrunta baino merkeagoa da.** Bai, horrela da. Bidaia bakotzeko euro bi kobratzen ditugu, eta gainontzekoa udalaren

diru-laguntzen bidez jasotzen dugu. Azken batean, auzoetako herritarrak herrira hurbiltzeko proiektu bat denez, ezin dezakegu gehiago kobratu, gure asmoa beraiek honi probetxuko egokia ateratzea delako.

**Urte eta erdi honetan esperotako emaitzak lortu dituzue?** Bai, emaitza oso onak izan ditugu; gu oso pozik gaude. Hala ere, martxoaren 13tik ibilbidetaren zati bat laburtu digute. Autobusa igarotzen den gunetan jendea jasotzea debekatuta daukagu, eta hori asko nabari da. Beraz, orain, araudi berriarekin autobusa hartzeko gai ez denak bakarrik edukiko du aukera debekatutako gune horretatik taxian ibiltzeko.

**Nola erantzun diote herritarrek araudi berriari?** Egia esan, herritarrak haserre samar daude, gozokia eman eta orain kendu egin dietela diote. Baina udalekoen jarrera ere ulertu behar da; azken batean, onartu behar da gastua handia dela. Jende askok kaleetan barrena ibiltzeko erabiltzen zuen taxia, eta horrela ez da errentagarri irtetzen. Beraz, bai herritarrek, bai guk, udalak hartutako erabakiei men egin behar diegu.

**Zerbitzu hau edozeinek erabili dezake?** Berrizkoa den hamasei urtetik gorako edozeinek erabili dezake; gazteagoek gurasoen laguntzarekin ibili beharko dute. Baina lege berriarekin taxia ezin da erabili herrian zehar ibiltzeko: auzoetatik herrira etortzeko eta alderantziz soilik erabili ahalko da. Herriarren erdigunetik ibiltzeko, zerbitzu hau ezgaitasunen bat

dutenek bakarrik erabili ahalko dute. Gainera, mugikortasun arazoak dituen pertsona horrek, udaletxean ziurtagiri bat atera beharko du. Bestalde, aldi baterako txartelak ere eskuragai daude udaletxean.

**Herrian taxi-gidari bi zaudete: nolako harremana duzue?** Oso ondo moldatzen gara. Bakoitzak bere bezeroak ditu, eta, gainera, bionak direnak ere baditugu. Orduan, bata zerbitzuan baldin badago, taxien gunean dagoenak edukiko du lehentasuna bezero horrengana joateko. Eta biok zerbitzurik gabe bargaude, txandaka joaten gara bezeroengana.

**Beste herri batzuk animatuko zenituzke antzeko proiektuaren batekin hastera?** Egia esan, niri ez zait komeni, bezero ugari ditut eta eskualdean zehar Norbaiti horrelako proiektuaren bat bultzatzea bururatuko balitzaioi, bezero dezente galduko nituzke.



### LAUHORTZA

JASONE AGIRRE GARITAONAINDIA

Kazetaria



#### Kontraesanean

Idazle eta rockero ezagun biren elkarrizketa kazetariak. Galdetu die politikaz, euskararen inguruan... Gazteleraz egin du lehenengo, kantariak ez baitaki euskaraz. Bata eta bestea. Gero euskaraz hasi da idazlearekin. Beste edozein gaitetik, zentzu kritikoa eta sentsibilitatea behar dela dio idazleak. Hori gustatu zaio kazetariari; gogoan hartzekoa, benetan.

Aurrera egin eta “biok euskararen aldekoak izan zarete”, bota dio idazleari. Eta aghhrr! Urduri ipini da idazle hori... Berarentzat euskara, ura arrainarentzat bezala dela dio... edo antzeko zeozer. Berezko duela, eta bera ez dela sekula izan “euskararen aldeko”.

Bere buruarekin haserre doa kazetari koitadua. Eta grabazioa entzuten hasi da

Akabo. Zergatik galdetu ote dio horrela? Ez zen errazago izango “euskarari buruz zer?” edo halakoren bat botatzea?

Deseroso sentitzen dela esan du idazleak, eta “agur eta agur”. Amaitu da elkarrizketa.

Bere buruarekin haserre doa kazetari koitadua. Grabazioa entzuten hasi da. Gaztelerazko zatia entzun du, eta “zer?”. Atzera bota du berriro. Ez, ez dabil oker. Ondo entzun du. Idazleak “sí, nosotros hemos estado a favor del euskara” dio, hitzez hitz, gero euskaraz kontrakoa esan badu ere.

Akabatu egingo luke. Baina horren orde, zentzu kritikoa euki gura duenez, hauxe idatzi du kazetariak; eta sentsiblea denez, ez du idazlearen izena esango.

## Batxilergoak eta Zikloak



Biharko Beharretarako

Abasolo 6 Durango, 48200 Bizkaia.  
Tel. 94 681 00 58, Fax. 94 620 06 38  
www.maristak.com | san-jose@maristak.com

Bolonia eta enpresak zute zain!

Ate irekiak  
Apirilak 9  
Maiatzak 14  
18:00-20:00

